

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA-2020-MARTXOAREN 27A-415.ZENBAKIA

# KARKARA



ESTEBAN GOZATEGI

**ERRIBERAKO  
AROTZAREN  
ERRETIROA**

# BIYONA

BERRIKUNTZAK-BARNE DISEINUA

etxea sukalde  
bainugela ...  
leihoak etxeko altzariak

eraberritzekotan?

## Bisita gaitzazu



Abendaño poligonoa, 2 · ZARAUTZ · ☎ 943-13 50 16 · [www.biyona.net](http://www.biyona.net)



UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELK.

### Harremanetarako:

[ukt@ukt.eus](mailto:ukt@ukt.eus)  
943-81 38 41  
943-89 00 17



*Asteartetik ostiralera,  
egunharria:*

Urola Kostako HITZA

*Hilero, aldizharriak:*

Maxizatzen  
Uztarría  
Baleike  
Karkara



*Une oro:*

[maxizatzen.eus](http://maxizatzen.eus)  
[uztarría.eus](http://uztarría.eus)  
[urolakosta.hitza.eus](http://urolakosta.hitza.eus)  
[baleike.eus](http://baleike.eus)  
[karkara.eus](http://karkara.eus)  
[erlotelebista.eus](http://erlotelebista.eus)  
[zarauzkohitza.eus](http://zarauzkohitza.eus)

*+sare sozialak*



*Egunero:*

Erlo telebista

*Astero:*

bideoak gure  
webguneetan

### Komunikazio zerbitzuak:

- Marka nortasuna
- Komunikazio estrategia eta plangintza
- Irudia eta diseinua: bideoak, papertegia, argazkigintza...
- Web orriak, blogak eta sare sozialak
- Tablet/smartphone aplikazioak
- Harreman publikoak: ekitaldien antolaketa
- Itzulpenak eta zuzenketak
- ...



# KARKARA 415

2020-MARTXOAREN 27A  
AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:  
ARNAITZ RUBIO APREA

## Aurkibidea

- |    |   |    |  |
|----|---|----|--|
| 5  | <b>Iritzia</b> Aiora Larrañaga Solaberrieta<br><i>Eskerrik asko</i>   | 31 | <b>Bazkide kluba</b>   |
| 6  | <b>Hitz tantak</b> Iñigo Gaiton<br><i>Ana Lasa</i>  | 33 | <b>Moila bazterretik</b> Garbiñe<br>Manterola<br><i>Balkoiak</i>                   |
| 8  | <b>Izpiak eta hizkiak</b> Iñigo Gaiton<br><i>Arraanean segi</i>   | 34 | <b>Akuilua hartuta</b> Xaitxerak Orioko<br>Talde Feminista<br><i>M8 egunero da</i> |
| 10 | <b>Gutunak</b>  | 35 | <b>Nire honetan</b> Iñigo Gaiton<br><i>Su goxoa</i>                                |
| 13 | <b>Herrian galdezka</b>   | 37 | <b>Euskara</b> Adrian Garcia Melero<br><i>Orio eta euskararentzako aukera</i>      |
| 14 | <b>Oroimenaren kutxa</b> Iñaki Iturain<br><i>Kofradiako eskola eta Luis Cisneros<br/>maisua</i>   | 38 | <b>Osasuna</b> Estibaliz Arruti Lazkano<br><i>Familiatik datorkiguna</i>           |
| 18 | <b>Elkarrizketa</b> Iñigo Gaiton<br><i>Esteban Gozategi: Ontziolara<br/>etortzea primerako aitzakia izaten<br/>zen eskolatik alde egiteko</i> | 39 | <b>Ikasleak idazle</b> Zaragueta Herri<br>Eskola                                   |
| 24 | <b>Erreportajea</b> Aiora Larrañaga<br>Solaberrieta<br><i>Osasun larrialdiaren aurrean, herri<br/>solidarioa</i>                              | 40 | <b>Albiste laburrak</b>  |
|    |   | 42 | <b>Plazan bazan</b>  |
|    |   | 45 | <b>Zerbitzuak</b>  |
|    |   | 46 | <b>Hasi bertsotan</b> Andoni Campos  |

## KARKARA



## TOKIKOM

### Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea  
Koop. Elk.

Soreasu 1. 20730

AZPEITIA

943-83 15 27

karkara@karkara.eus

www.karkara.eus

**Lehendakaria**

Rikardo Uzkudun

### Erredaktoreburua

Aiora Larrañaga  
Solaberrieta

### Erredaktore taldea

Onintza Aiestaran

Onintza Lete Arrieta

Elizabete Manterola

Iñigo Gaiton

Rikardo Uzkudun

### Diseinu arduraduna

Ane Azkue

### Publizitatea

Leire Martija

### Ale honetako

### kolaboratzaileak

Iñaki Iturain

Garbiñe Manterola

Xaitxerak Orioko Talde

Feminista

Adrian Garcia Melero  
Estibaliz Arruti Lazkano

### Banatzaileak

Endika Ruiz (Orio)

Manex Dorronsoro (Orio)

Eli Irureta (Aia)

### Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

### Lege Gordailua:

SS-346/90

ISSN: 1132-1105

Tirada: 3.450 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜISTICA



ORIO



AIAKO  
udala



## PUBLIZITATEA



Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

22, 26, 28, 49, 55 eta 60 eserleku dituzten literadun autobusak ditugu.

**Ubegun industria gunea, 4 AIA-ORIO**  
 943-13 28 93 · 656 78 29 99 (Gabino)  
 Fax-a: 943-89 05 62  
 alustiza@autocaresalustiza.com



Olaskoegia z/g  
 AIA-ORIO  
 943-13 04 38

**ANORGA TXIKI, S.L.**  
**KRISTALDEGIA**

Oria etorbidea, 4  
 LASARTE-ORIA

anorgatxiki@gmail.com  
 www.cristaleriaanorgatxiki.com  
 943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak



**Aristerrazu Jatetxea**

Andatza auzoa · AIA  
 943-83 45 21  
 www.aristerrazujaatetxea.com

*edaritegia* **Antilla** *jatetxea*

Abeslari kalea, 2  
 ORIO  
 943-83 23 09

- Menuak
- Plater konbinatuak
- Errazioak
- Ogitartekoak

**arkaitz taberna**  
 orio

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

*Terraza ederrarekin giro ezin hobea*

abeslari kalea 6 - 943-83 16 57

Pelotari, 5 · ORIO  
 943-83 00 34  
 autolan13@hotmail.com



**AUTO - LAN C. B.**



Zerbitzu teknikoak  
 24 ordu

**fontana iturgintza**  
 iturgintza · gasa · berogailuak

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoaren instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dutxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

Plaza Endaia, 1 · ORIO  
 fontana-jul@hotmail.es  
 www.fontaneria-fontana.com  
 943-53 98 88 · 661 26 28 28

BODEGAS *Jailur*

01307 BANCOS de EBRO  
 Tel./Fax: 945 20 91 58  
 www.bodegajailur.com

Arabar Errioxa

**ZUDUGARAI**



*Galeria Txokolina*  
 txokolina.com.arabar

Tel.: 943-83 03 86 · Fax-a: 943-83 59 52  
 txakolizudugarai@euskalnet.net · www.txakolizudugarai.com

**Carmen eta Txomin**  
 ARRAINDEGIAK



TXOMIN ARRAINDEGIA  
 Eusko Gudarien kalea, 44  
 943-83 27 47

CARMEN ARRAINDEGIA  
 Arizaga kalea  
 943-83 05 37



# Eskerrik asko



AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

**A**ste batetik bestera koronabirusa gure kezka nagusia bihurtu da. Gaixotasunak bereganatu ditu elkarrizketak, eta etxeko protagonista da orain. Aitortu behar dut martxoko lehen asteetan, nazioarte mailako komunikabideek koronabirusaz hitz egiten zutenean, gaia puzten ari zirela pentsatzen zuten horietakoa nintzela. Argi dago oker nengoela, koronabirusak hankaz gora jarri baitu gizartea. Martxoaren 12an izan zen niretzat inflexio puntua. Lanera sartu bezain pronto izan nuen lehen ezustekoa. Zaharren Babeslekuko presidente Txomin Iribarrek deitu zidan, birusa adinekoen artean ez zabaltzeko neurri gisa, Eusko Jaurlaritzaren aginduz Zaharren Babeslekua itxiko zutela esanez. Gaiarekin kezkatuta ikusi nuen gizona, eta ni ere preokupatzen hasi nintzen. Artean ez banekien ere, ez zen eguneko albisterik kezagarriena izango. Eguerditik aurrera iritsi baitziren herritar askoren bizimodua hankaz gora jarri zituzten berriak. Udal ekipamenduen itxiera jakinarazi zuten lehenengo, eta jarraian haurreskola, eskola eta unibertsitateak itxeko agindua eman zuten. Egunak pasa ahala, birusaren mamua zabaldu da, eta osasun larrialdi egoeran gaude.

Halabeharrez, pixkanaka egoera berrira ohitzen ari gara. Garai zailek alde positiboa ere izaten dutela diote askok, eta uste dut egoera gogor honek gure arteko elkartasuna indartzeko eta ahaztuta zeuden zenbait balio biziberritzeko balio izan duela. Horregatik, eskerrak emateko garai aproposa dela iruditzen zait. Eskerrak egoera zaurgarrienean dauden herritarrei laguntzeko prest agertu diren boluntarioei; eskerrak osasun langileei, eta horiek koronabirusaz babesteko beren etxean mantalak eta maskarak egiten ari diren jostunei; eskerrak auzotarren berrogeialdia alaitzeko balkoitik edo KARKARAREN webguneak eskaintzen duen leihotik emanaldira ematen ari diren sortzaileei; eskerrak, ezohiko egoera honetan, aldizkaria egin ahal izateko parte hartu duzuen elkarrizketatu, iritziemaile, bertsolari edo ilustratzaileei, azken uneko aldaketen aurrean izan duzuen pazientziagatik. Eskerrik asko baita ere, aldizkaria egiteko eta webgunea martxan edukitzeko gure seme-alaben zaintzan lagundu diguzuen bikote eta senideei, zuen laguntzarik gabe ezinezkoa izango litzatekeelako egunotan KARKARAK eta tokiko hedabide guztiek duten funtzio soziala betzea.

Eta azkenik, bihotzez, eskerrak KARKARAREN irakurle guztiei, ulertzeagatik ezohiko egoera honetan ezinezkoa izan dela aldizkaria etxetz banatzea. *Karkara.eus*-en eskuragarri jarri dugu martxoko aldizkaria herritarrek irakurri ahal dezazuen, eta osasun larrialdi egoera pasatzen denean, ez izan zalantzarik, iritsiko da aiarren eta oriotarren etxeetara. Azken asteotan behin eta berriz errepikatu den bezala, herritar guztion osasuna bermatzea da garrantzitsua. Beraz, elkar zaintzen jarrai dezagun! ■■■

**OSASUN LARRIALDI  
EGOERA PASATZEN  
DENEAN, IRITSIKO DA  
KARKARA AIARREN  
ETA ORIOTARREN  
ETXEETARA**

# Ana Lasa

**TESTUA:** IÑIGO GAITON

**ARGAZKIA:** AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Ana Lasa (Orio, 1987) botikari familiako hirugarren belaunaldia da, eta ondo ezagutzen du ofizioa. Egunotan lanez gainezka dabilta farmazian, eta koronabirusak sortutako egoerarekin kezkatuta dago. Dena dela, ekimen ederra eta beharrezkoa iruditu zaio herrian sortu den zaintza sarea, arrisku taldeetako lagunak babestea ezinbestekoa dela uste duelako.

## **Nola ari zara bizitzen koronabirusaren krisia?**

Hasieratik ikusten genuen gaia kezagarria zela, baina inork ez zuen espero hain larria izatera iritsiko zenik. Birusa hurbiltzen hasi ahala, kezkatzen eta urduri jartzen hasi nintzen, egia esan. Dena den, egoerari aurre egiteko gure lana beharrezkoa zela ulertu nuen berehala; hasieratik iruditu zitzaidan garrantzitsua birusa saihesteko arauak errespetatzea, jendeak hasieran hori ulertu ez arren. Egia da, orokorrean, hemen behintzat, jendearen portaera ona izaten ari dela. Denon artean aurre egin behar diogu arazoari, batez ere, birusa arrisku taldeetako jendearengana ez iristeko.

## **Zure lanari dagokionez, ohi baino ordu gehiago egin al dituzu lanean?**

Bai. Herritarren beharrei ahalik eta erantzunik onena ematen saiatzen gara, eta farmazian lan handia izan dugu, jende ilara esanguratsuekin. Egun batzuetan, minutu bat ere ez dut deskantsatu. Horren ondorioz, atzeko lanak atzeratzen joan zaizkigu, normalean farmazia itxi ondoren egiten ditugunak.

## **Zuentzat zer ari da izaten zailena osasun krisialdi honetan?**

Jende asko etortzen da farmaziara benetan premiazkoak ez diren produktuen bila. Horren ondorioz, trabatu egiten da gure funtzionamendua, eta zerbitzua dezente moteldu. Orain ez du zentzurik botikara hortzetarako pasta edo bikarbonatoa erostera etortzeak.

## **Herritarren artean, zein da kezka nagusia?**

Jendeak birusaren eragina noraino iritsiko den jakin nahi izaten du, hori da kezka nagusia. Nire ustez, garrantzitsuena, arrisku taldeetako lagunak babestea da. Kontuan izan behar da farmaziara

etortzen diren herritarren %80tik gora jende polimedikatua izaten dela, eta horientzat larria izan daitekeela birusaren eragina. Tentsio handiarekin bizitzen ari gara gaia.

## **Osasun arloko langileon kasuan, nola babesten duzue zeuen burua? Kezkatzen al zaitu zeure osasunak?**

Hasiera batean, segurtasun distantziekin hasi ginen. Aurreneko astean jendeak ez zuen hori serio hartzen, eta gu urduri jartzen ginen, arriskua ikusten genuelako. Konfinamendua martxan jarritakoan, jarrera aldaketa antzeman genuen. Segurtasun distantzia zaintzen dugu, maskarak eta eskularruak erabiltzen ditugu eta metrakilatozko panelak ere egin genituen, babesteko. Tentsioa eta halako probak ez ditugu egiten oso beharrezkoak ez badira, jendearekin kontaktua ekiditeko.

Nire kasuan, etxean konfinamenduan eman ditut egun batzuk, kalentura dezima batzuekin. Lanera itzultzeko moduan egon arren, ezin izan dut farmaziara joan, prebentzioagatik. Nire osasunak kezkatzen nau, baina ez niregatik, besteak kutsatzeko beldurragatik.

## **Zergatik ez dira test gehiago egin?**

Baliabide gutxi ditugulako. Hasieran jende dezenteri egiten zizkieten testak, baina baliabideak bukatu ahala, kasu larrienei bakarrik egitea adostu zen; egia da onena sintomak dituen orori egitea dela, baina ez da posible izan, baliabide gabe geratu zirelako. Dena den, sintomak dituenak ez du etxetik atera behar.

## **Koronabirusak irudi oso gogorak utzi ditu, baina gizalegezko jokabideei ere bide eman die, ezta?**

Orioko zaintza sarearena adibidez, ekimen oso ona iruditu zitzaidan. Horren berri izan nuenean, alkatearekin hitz egin nuen, ekimena guretzat oso egokia delako: farmaziara adineko jende asko etortzen da, eta koronabirusaren aurrean, haiek dira zaurgarrienak. Herritarrek solidaritatea erakutsi dute, eta halako egoera batean, eskertzekoa da benetan. Tarteka, momentu txarretan ateratzen dira gauza onenak **Aurrera begira, baikorrak izateko arrazoirik ba al dugu?** Ez da galdera erraza. Denon artean egin behar dugun ahalegina da hau, eta arauak zehazki betetz gero, lortuko da arazoari traza hobea ematea. ■■■





## Arraunean segi

**ARGAZKIA ETA TESTUA:** IÑIGO GAITON

Olatu batetik besterako denbora tartean, mundua alda daiteke; di-da, segundo gutxian. Begiak itxi eta irekitzerako, birus arraioak gure bizitzak irauli ditu, eta ondo izorratuta gabiltza azken egunotan. Lurralde ezezagunera eraman gaitu koronabirusak: nora, eta, bakoitza bere etxera. Arrotz sentitzen gara sukaldeko ohiko leihotik begira. *Konfort zona* delakotik atera gaituzte kolpetik, etxeko epelean egotera behartuta. Halakorik! Eguna joan eta eguna etorri, arraunean jarraitzeko kemena mantentzea besterik ez zaigu geratzen; ahal den neurrian, Xanderrek argazkian bezala, irribarreari eta bizipozari eutsiz. ■■■







## Juan Priede gogoan

### ORIOKO HERRITAR FOROKO KIDEAK

Martxoaren 21ean 18 urte bete dira Juan Priede Perez jauna hil zela; 18 urte, Orioko taberna batean kafea hartzen ari zela hil zuten egunetik. Udaberrian sartu ginen egun berean hil zuten gizona, Orioko herritarrek udal hauteskundeetan botoen bidez zinegotzia izan zedin aukeratutako sozialista. Mendiak, zelaiak eta parkeak lorez edertzen zaizkigun garaian, heriotzak saminez bete zuten gure herria.

Orain, 18 urte geroago, guk gogoan dugu gizon hura, gogora ekarri nahi dugu, adierazteko haren hilketa giza eskubide oinarrizkoenaren kontrako indarkeria onartezina izan zela.

Giza eskubideen artean bultzeko eskubidea da lehena eta oinarrizkoena. Orion elkarbizitza sustatzeko orain dela urte batzuk sortu zen Foro honetako kideok herritar guztion giza eskubide guztien aldeko aldarrikapena egin nahi dugu, haien aldeko defentsa sutua, eta gizon haren izen ona agertu. Bide batez, Juan Priederen seme-alabei eta gainerako senideei gure elkartasuna helarazi nahi diegu.

## Besteen kartelak errespetatu

OIER IRURETAGOiena, LH 5EKO IKASLEA

Aurreko igandean aita eta biok bertso afari baterako kartelak jartzen ibili ginen Orioko kaleetan. Lehenengoa Salatxo parean jarri genuen, bigarrena Xixarioren aurrean, hirugarrena anbulatorio parean, laugarrena kiroldegiko sarreran, bosgarrena Eusko Gudari kalean, seigarrena Kultur Etxean, zazpigarrena Iturbide kalean eta, zortzigarrena, Goxokiko parkean. Asteazkena iritsi zenean kartelak nola zeuden begiratzera joan nintzen eta hauxe ikusi nuen: Salatxo eta Xixariokoak ondo zeuden, baina beste guztiak falta ziren. Anbulatorioko kartela dena puskatuta zegoen eta lau ertzak besterik ez ziren geratzen. Kiroldegikoa ere falta zen, beheko partea bakarrik geratzen zen; Eusko Gudariko kartelaren gainean beste kartel bat jarri zuen norbaitek. Kultur Etxekoa ondo zegoen, bitrinaren barruan zegoelako. Azkenik, Iturbidekoa eta Goxokiko parkekoak lurrean botata ikusi nituen. Zergatik jendeak ez ditu errespetatzen besteen kartelak?

## Orioko komunikazio sarea

### LUIS CISNEROS PEREZ

Asko eta oso garrantzitsuak dira Orioko Udalbatza berriak datozen hiru urteetan izango dituen erronkak. Arlo asko jorratu daitezke, baina horietako bat aipatu nahiko nuke: herriko komunikazio

sarea. Izan ere, herria inguruko herri eta hiriekin lotzen duen errepide sareak bi traba nagusi ditu. Alde batetik, N-634 errepidean barrena mota guztietako ibilgailuak ibiltzen dira egunero, eta horrek bakartuta uzten du herriaren zati bat, Ibai Ondo eremua eta Anibarko Portua. Horregatik, oso garrantzitsua da zubi berria eta saihesbidea egiteko baliabideak eta finantziarioa eskatzea Gipuzkoako Foru Aldundiari. Proiektu horiek onartuta daude eta lehiaketa publikora ateratzea besterik ez da falta. Izan ere, 2006an onartu zen saihesbidea egiteko proiektua.

Bestetik, urte askotako ahaleginaren ondoren, Donostiako noranzkoan autobideko sarrera-irteera egitea lortu zen Orion, baina badu eragozpen nabarmen bat. Oriokoa da bi noranzkoak ez dituen autobideko irteera bakarra. Horregatik, garrantzitsua da Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea egin dezala Bilbora joan-etorria ahalbidetzen duen irteera. Neurri horrekin, Orio Gaineko zirkulazioa arinduko litzateke, gainera.

Aipatutako neurri horiek garrantzitsuak izango dira erakusteko Orioko Udalbatza berria aurretik dagoena hobetzeko aurkeztu dela. Uste dut adostasunetara iritsita jorratu beharreko gaiak direla, alderdikieretan erori gabe. Elkarlanean, erakutsiko dute

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio



aurretik egon diren zinegotziek lortu ez dutena lortzeko gai izan direla. Zorte ona opa diet ahalegin horretan.

(2020ko otsailean bidalitako gutuna)

## Hau guztia ere pasako da, baina bitartean...

### HERRIKO UME TXIKIEN GURASOAK

Dagoeneko sei egun daramatzagu etxean sartuta oinarrizko gauzetarako soilik ateratzen. Egoera hau guztiontzat da zaila, eta noiz arte luza daitekeen ez jakiteak ziurgabetasun handia sortzen du guztiongan.

Helduen kasuan, batzuek lanera joan behar dugu, beraz, etxetik atera gaitezte; erosketak egitera joan gaitezke, zaborra botatzera jaitsi gaitezke, botikara joan gaitezke, etxeko animaliak pasiatzera atera gaitezke, etab. Badakigu ahal dugun gutxien egin behar dugula eta, orokorrean, uste dugu, saiakera handi bat egiten ari garela hau betetzeko.

Baina zer gertatzen da umekin? Hasieratik esan diegu ezin dutela kalera atera, debekatuta dagoela. Adinaren arabera, era batera edo bestera, azaldu diegu gu, helduok, zertara soilik atera gaitezken. Gurasook imajinazioa martxan jarri dugu eta burura etortzen zaizkigun ekintza guztiak egiten saiatzen ari gara umeak ez aspertzeko: eskulanak, sukaldeko mahai azpian etxetxo bat, egongela erdian aulkiak

izara handi batekin estali eta *kobazuloan* meriendatu, balkoiak *parke* bihurtu, etab.

Horretaz gain, komunitatean sortutako ekimenetan ere parte hartzen saiatzen gara, guztiak balkoietan: 20:00etan txalo zaparrada, ondoren *Txoriak txori* abestu, zartaginak eta kazuelak jotzera atera...

Gu zortedunak sentitzen gara ume asko dauden komunitate batean bizi garelako eta, zorionez, nahiz eta balkoitik balkoira edo leihotik leihora izan, iluntzeetan giro berezi bat sortzea lortu dugulako. Bizilagun batek gitarra, besteak eskusoinua, beste hainbatek panderoa, irrintziak, *Sardina bat, bi sardina* abestia... Gure txikiak iluntzea iristeko irrikaz egoten dira *fiesta* momentu hori bizitzeko.

Sare sozialetan bidez gaur 14:00etan "Etxeko txikiaren *fiesta!*, behar bezala esker diezaiegun egiten ari diren esfortzu eta saiakera" mezua zabaldu da auzotarren artean. Ume asko bizi den auzoan bizi gara, eta festa berezia sortu nahi izan dugu: bizilagun batek umeentzat musika jarri du inguruko bizilagunek entzuteko moduan, balkoietan globoak zintzilikatu ditugu, eta beste bizilagun batek goxokiak bota ditu gainontzekoen balkoietara.

Dena dela, ezusteko ederra hartu dugu, musika jarri eta hamar minutura udaltzainak etorri direnean. Antza denez, bizilagun batek kekaka deitu die. Guztion harridura azaldu

dugu eta umeenganako enpatia eza ikusi dugu. Nahikoa egiten ari dira etxetik atera ere egin gabe eta, gainera, eskaini diezaiekegun gutxi hori egiten ere ez digute uzten!!

Udaltzainak ere harrituta zeuden egoerarekin, eta beren ezintasuna azaldu dute, esanez txalotzekoa dela izaten ari garen jarrera positiboa.

Amaitzeko, gure esker ona adierazi nahi diegu inguruko bizilagun guztiei. Eta kexatu den bizilagunari, berriz, esan nahi diegu etxetik atera gabe sei egun daramatzaten umeengan pentsatzeko. Horiek ezin dute atera enkarguetara, txakurra pasiatzera, botikara edo lanera; beraz, benetan berrogeialdia egiten ari direnak beraiek dira.

Animo, hau ere pasako da eta bitartean jarrai dezagun bizilagunen artean momentu bereziak sortzen! ■■■■

## HILDAKOAK

- **Juan Mari Atorrasagasti Zabala.** Orion, martxoaren 3an. 79 urte.
- **Joxe Gozategi Makazaga.** Orion, martxoaren 3an. 81 urte.
- **Florentino Martikorena Arrizabalaga.** Orion, martxoaren 9an. 77 urte.
- **Frantziska Artola Arruabarrena.** Orion, martxoaren 9an. 89 urte.
- **Esteban Azkue Azkue.** Orion, martxoaren 11n. 85 urte.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

Lagundu plastikoak murrizten

1. Zuzenean otarrean sartu produktua
2. Behar baduzu, eskatu eta eraman  
etxera gure poltsa berrehabiltzamiak
3. Humengoan, etxetik ekar ditzakezu poltsak

**GOZATEGI**

**FRUTADENDA**

**azkue**  
karrozeriak

Ubegun industrialdea, 7  
AIA-ORIO  
943-83 51 86

**IGLESIAS**  
**SARRAILAGILEAK**

iglesiascerrajerros@yahoo.es  
www.iglesiascerrajerros.com  
Erribera kalea, 14 · ORIO  
637 72 33 08

24orduko zerbitzua

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

**Gabon**  
TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7  
943-83 06 09

**Joseba**  
AROTEGIA · CARPINTERIA

ATEAK  
ZOKALOK  
ARMAIRUAK NEURRIRA  
LEIHOAK  
ESKAILERAK  
AROTEGIA OROKORREAN

687 683 427  
josebaarotza@gmail.com

**JAPONIAR HIZKUNTZA ETA KULTURARI BURUZKO TAILERRA**  
2020 UDA - Uztailak 1 - 28  
40 ordu/goizero bi ordu

**Oinarrizko maila**  
Gurekin ikasiko dituzu:

- Esaldi errazak idazten eta irakurtzen
- Eguneroko bizitzako esamoldeak
- Japoniako kulturaren alderdirik adierazgarrienak

Udaz gozatu NARAU japoniera ikasiz, hizkuntza bat ikastea hitz egiten duenaren kultura ulertzea ere badelako.

**INFORMATU ZAITEZ!!**

10 urtetik gorako haurrei eta helduei zuzenduta

**IZEN-EMATEA**  
EKAINAREN 15ERA  
ARTE ZABALIK  
PLAZA MUGATUAK

NARAU school & translations  
Eusko Gudari 29, Orio  
943 831 116  
648 976 470  
info@narau-school.com  
www.narau-school.com

**KIROL TXOKOAK 2020**  
Zatoz gurekin eta gozatu!

KARELA KIROLDEGIKO UDALEKUAK

**Kolon Txiki**  
edarategia · jatetxea

Herriko Enparantza 4  
ORIO  
Tel.: 943-83 00 44

**ITZIAR**  
KIROLAK

Eusko Gudarien kalea, 23  
ORIO  
943-83 31 03

**INDO**

**Garraio frigorifikoa**  
**Nazionala eta Nazioartekoa**

generoa

ibilbideak

kamarak

garraioak

Ubegun industriagunea, 4  
AIA-ORIO  
943-89 4024 · FAX-a: 943-13 01 44

# Zer moduz moldatzen ari zara konfinamenduan?



## SANTOS CARRETERO

Orokorrean, ondo esan beharko. Aurreneko astea azkar pasa zait, baina beno, aurrenekoa izan da; hurrengoak, ikusi egin behar. Egoera honetan zailena gure espazioa zenbat txikitu den ikustea da, 24 orduz lau pareten barruan egotea. Krisi honi ez diot alde onik ikusten, baina irakurketa positiboren bat egite aldera, gutxiago begiratzen diot erlojuari. Lasaiago bizi naiz. Lanari dagokionez, etxetik jarduteko aukera dut, eta goiza azkar joaten zait horretan. Bestela, ez dut errutina berezirik jarraitzen ezohiko egoera honetan, betikoa: lanak eta otorduek markatzen dute etxeko martxa. Aurrera begira, optimista naiz, zientzian konfiantza handia dudalako; gurasoen belaunaldiari erreparatzen badiot, berriz, optimismoa urtu egiten zait. Egoera aldrebes honek kolpe handia emango die, eta arrastoa utzi.



## MAREN GONZALEZ DE TXABARRI

Uste baino hobeto moldatzen ari naiz. Zorte handia dut, etxean terrazatxoa dugulako, eta horrek asko laguntzen digu. Ahizpa ere badut, eta berarekin asko entretenitzen naiz, tarteka borroka ere egiten dugun arren. Normalean kalean asko ibiltzen naizenez, gogorra da orain etxean egon beharra, lagunekin jolas egiteko aukerik gabe. Haiekin komunikatzeko tresna digitalak erabiltzen ikasten ari naiz, eta, beno, hori izan daiteke honen guztiaren alde on bat. Etxeko garbiketarako egiteko ere denbora gehiago dugu orain. Errutina dugu etxean: zortzi eta erdietan jaiki, eta eskolako lanak egiteari ekiten diot, arratsaldeko lauak arte. Gero, kirol pixka bat egiten dugu eta ahizparekin jolasten dut. Ez nuke nahi egoera asko luzatzerik, baina gaixo guztiak sendatu arte etxean egotea da onena. Animoak eman nahi dizkiet egoera zailean dauden guztiak.



## OLATZ MUJIKA

Nahikoa ondo egokitu naiz egoera berrira. Irakaslea naiz ofizioz, eta etxetik lanean ari naizenez, ordu asko ematen ditut horretan. Kirola eta etxeko lanak gehituta, eguna nahikoa azkar joaten da. Goizetik arratsaldeko lau eta erdiak arte eskolako lanekin jarduten dut, eta gero kirola egiten dut edo txakurra atera. Gogorrena telebistako albisteak ikustea da, eta osasun krisiak noiz arte iraungo duen edo larriagoa izango den ez jakitea. Momentu honetan beltz ikusten dira gauzak, baina uste dut ondorio onak aterako ditugula; lehen balioa ematen ez genien gauza simpleak gehiago apreziatuko ditugu. Gaitzari dagokionez, ez nuen uste honaino iritsiko zenik, oso azkar joan da dena. Kasu kopuruak goia ahalik eta azkarren jotzea gustatuko litzaidake, eta egoera hobetzen hastea. Luze joko duela iruditzen zait, eta ez dakit eskoletara noiz itzuliko garen. ■■■



# Kofradiako eskola eta Luis Cisneros maisua



**IÑAKI ITURAIN** iturain@gmail.com

**ARGAZKIAK:** UTZITAKOAK

Arrantzaleen Kofradiako etxea lurrarekin berdindu zuten 2019ko udazkenean. Oriotar askorengan pena eta iragan-min sentimenduak sortu zituen eraisketak. Herriko literatur lehiaketan idatzi ere egin dute batzuek kofradiaren gainean. Mikel Iruretagoienak bertso ederrak jarri zizkion, eta Iñigo Gaitonek ipuin itxurako gogoeta hunkigarria idatzi zuen, etxe hartako zenbait gertakari gogoan.

Gauza asko erori ziren kofradiarekin batera betekio. Oroimenean geratuko zaizkigu: San Nikolasen irudia, barometroa, katuak, beheko sotoak arrantzaleen tresnez beteak, arkupeetako aterpea, hango bankua, arrantzale zaharren topalekua, balkoian arrantzarako bandera...; eta herriko gizon askorentzat, txikitan han igarotako eskola-urteak.

Izan ere, kofradiaz gain etxe hartan mutilen bi eskola ere egon ziren. Eskola haietatik oriotar asko pasatu gara, 1950eko hamarraldian jaiotako mutil gehienak. Maisu Eugenio Arbilla, Jose Campos eta Luis Cisneros ibili ziren kofradiako bi ikasgeletan.

Arbilla eta Campos biak ere aspalditxo hil ziren. Luis Cisnerosek 85 urte ditu orain. Uda garaian bisitan etortzen da

Oriora azken urteotan. Aurtengo abuztuaren 11n luze jardun genuen hizketan. Herriko frontoian egokitu ginen elkarren ondoan, Orioko senegaldarrek herritarrontzat antolatu zuten bazkarian, arkumearen festa zela-eta.

Frontoiko topaketan kofradian maisu izan zen garaiko kontu asko gogoratu genituen. Haiek ekarri ditugu hona. Nongoa den galdetuta, Inongoerrietakoa omen da. Hala esan zigun: "De ninguna parte y de muchos sitios". Bizkaian jaioa da Luis Cisneros, Karrantzan. Orain Roquetas de Mar herrian bizi da, Almerian. Hori bai, gauza bat garbi dauka: "Errepublikan jaioa naiz, eta errepublikarra" (1934an jaioa da).

Gurasoak maisu-maistrak izan zituen biak, eta bera ere maisu ibili da lan-bizitza osoan. Aita komandante ibili zen Errepublikaren armadan 1936ko gerran. Gerra bukatuta, hamar urte ezkutuan eman zituen (1939-1949), bestela *garbitu* egingo zutelako. Luisek 15 urte zituela, 1949an, ihes egin zuten Frantziara

**BERRIKUNTZAK SARTU ZITUEN CISNEROSEK ESKOLAN. BESTEAK BESTE, ESKULANAK EGITEN HASI ZIREN**

Hondarribitik barrena; baina De Gaullek entregatu egin zituen Espainiako polizari. Maisu izateko ikasita, ibilbide luzea egin zuen lanean: Zaldibia, Oñati, Lasarteko Mitxelin enpresan, Erreterria, Irun, Maltzaga, Aginaga eta Orio.

Emaztea Lasartekoa du, Ana Mari Agirre. Herriz herriko ibilbidean jaio zitzaizkien hiru seme-alabak: Jesus Lasarten, Susana Aginagan eta Jone Orion, bertan bizi den bakarra.

## **Kofradiako eskolan**

Oriora, haren aurretik ibilitako Jose Campos ordezkatzera etorri zen. Aurrena kofradian aritu zen; gero, ikastetxe berrian. Hogei urte eman zituen herrian maisu-lanetan, 1966tik 1986ra. Orduan, Andorra aldera jo zuen. Kofradiako eskolak Escuela de Orientacion maritima y pesquera zuen izena. Kofradiako eskolako lehenengo urteetan, 8 eta 14 urte bitarteko mutilak denak batera hartzen zituen ikasgelan. Urte batean, 64 haur izan zituen batera. Haietako asko 14 urterekin itsasoan hasten ziren, bapore batean txotxo. Neguko arratsetan, arrantzaleak lehorrean ziren garaian, haiei ere ematen ziren eskola, patroititulu ateratzeko.

Garai hartako eskolan berrikuntza ziren hainbat gauza sartu zituen. Eskulanak egiten hasi ziren: egurra tailatzen,



Luis Cisnerosek artearekiko zaletasuna izan du beti.

pintatzen, marketeria... Mutilak, kirol egiten; haurren futbol taldeak eratu ziren Zarauzko plaieroetan jokatzeko, Aguiluchos izenean. Eguna egunkariko albisteak irakurtzen hasten zuten. Xakea sartu zuen eskolan; ikasleak Lasarteko txapelketara eramane zituen. Eskolan xakean ikasi zutenek herrian txapelketa antolatuta zuten, 1978 aldean, Orion helduentzat antolatuta den bakarra (Antonio Baylin praktikantea geratu zen aurrena, eta Jesus Mari Segurola bigarren). Telebista jarri zuen ikasgelan (orduan

berritzailea zen hura). Pinturaklub bat sortu...

Aurreneko urteak frankismo beteane eman zituen kofradiako eskolan, euskarak eta euskal kulturak eskola publikoan inolako tokirik ez zuten garaian, ikasle batek zerbait *gaizki* egiten zuenean hura jotzea ez bakarrik normala, egin beharrekoa zenean. Dena dela, Luisek aitortzen du batzuetan eskuak arinegi erabili zituela. Gauza bat esaten du harro: haren gelan ez zuten sekula *Cara al sol* edo frankismoari lotutako kanturik kantatu ikasleek.



1970 inguruan, Xixarioneko parrillaren aurrean, Xixario, Cisneros, donostiar bat eta mexikar bat. Atzean Xixarioneko aitona Ramon. Atunak 65 kilo, ederki kostata harrapatua.



Luis Cisneros irakaslea ikasle bati azalpenak ematen.



Luis Cisneros frontoian, 2019ko udan.



Cisneros ikasleekin.

### **Maisu, pintore eta zinegotzi**

Orion ibili zen denboran, gauza askotan inplikatu zen. Gestoras Pro Amnistia taldean ibili zen. Arraun klubaren sorreran, klubak izan zituen hamaika abal-emailetako bat izan zen Luis, beste zenbaitekin: Patxi Zaldua zena, Felipe Arostegi... Elizan itxialdi bat egin zuten, protesta batean. Francoren

diktaduraren ondorengo aurreneko udal hauteskundeetan, PSEko hautagaia izan zen, eta zinegotzi hautetsia. Pintatzea zuen Luisek orduan zaletasunik handiena; denbora librean pintorea zen eta Vis pseudonimoarekin sinatzen zituen bere koadroak. Harremana izan zuen Gipuzkoako hainbat artistarekin. Haietako birekin batera, euskara ikasteko ahalegina ere egin zuen, Rafael Ruiz Balerdi eta Eduardo Txillidarekin, baina ez zuten ikasi.

Luisek dioenez, Eusko Jaurlaritzak Orioko Goiko Kalea eremu historiko-artistiko izendatzea lortu zuen, espekulazio urbanistikotik babesteko. Orioko korrespontsal ere izan zen. Egunkariko orrialdeetan, ibaiaren kutsadura salatu zuen zenbait aldiz. Egiten ari ziren Bilbao-Behobia autopistako zubiaren proiektuaren kontra agertu zen, errioko bi posteak arrantzaleentzat eta lehorreko lur-betelan handi hori

oinezkoentzat oztopo handia zirelako. Horregatik bota zuten egunkaritik. Gero Radio San Sebastianeko korrespontsal ibili zen, 1986an Oriotik joan zen arte.

Hondartza aldean dauden ahateak-eta 1980 inguruan jarri zituzten, lehen-lehenengo guardia zibilek plaia txikian zuten kasetan, haiek handik botatzeko; bazekitelako guardia zibilak orduan ez zirela ausartuko herritarren kontra egiten. Asmatu egin zuten. Pako Barjakoba zenarekin-eta ibili zen horretan.

Bere lanik onuragarriena herrian ikastetxea eraiki zezaten bultzatzea izan omen zen, Juan Zaraguetaren izena hartu zuen eskola. Hura eraikitzeke egin zuten borrokan, orduko ministroarengana iritsi zen, Madrilén. Gero, ikastetxe berria zabaldu zutenean, han greba egin zuten, maisu-maistren lan baldintzak hobetzeko eskatzeko, eta irabazi, helburua lortu.

Horraino, iazko udako frontoiko elkarrizketan Luisek gogora ekarritakoak. ■■■





BAZKIDE EGIN NAHI DUZU?  
Deitu telefono zenbaki honetara  
**943-83 53 98**  
MENUAK EMATEN DIRA

---

Herriko Plaza, 1



**Opari, menaje eta erremintak**

Eusko Gudari, 5 · ORIO · 943-83 12 36



**KATU HORIA**  
albariaritza klinika


ESTROPALARZ, 10  
20810 ORIO  
tel. 943 11 66 99

LOKALITATEA  
**668891129**





**kutixi**  
kafetegia

Aritzaga 9 · ORIO · 943-13 15 17



**KAIOA**

 **kaioa\_denda**

 **www.kaioa.es**



**Lizaso Dekorazioa**

Eusko Gudari, 48 · ORIO · 943-83 07 84  
itzilizaso@gmail.com



**Imanol Illarramendi**  
Aia (Gipuzkoa)

**KORTABERRI**  
arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com

665 70 33 47



**libe**  
dietetika  
elikadura aholkularitza

943-53 64 94  
697 23 86 56  
libegarmendia@gmail.com  
www.libegarmendia.com

Ondo elikatuz Biz!

Eusko gudariak, 35 · ORIO  
(sarrera Arrantzale kaletik)



**MARBIDO**

ILKAPAINDEGIA  
Eusko Gudari, 8 behea · ORIO  
943-13 47 29



**Zarautz**

**Hileta Zerbitzuak**  
1962. urtetik zure zerbitzura

**24 ordu zure zerbitzura**  
Beilatokia · Lekualdatzeak ·  
Eginbide guztien tramitazioa

Araba kalea 35 · ZARAUTZ  
943-89 49 37  
info@zarautzhiletazerbitzuak.eus



# "Ontziolara etortzea primerako aitzakia izaten zen eskolatik alde egiteko"

**ESTEBAN GOZATEGI** ERRIBERAKO AROTZA

Esteban Gozategik erretiroa hartu zuen otsaila amaieran, ia berrogeita hamar urtez erriberako arotz lanetan jardun ondoren. Mutiozabal ontzian elkarrizketatu du KARKARAK, aitak ofizioa erakutsi zion toki berean. Orion hasi zuen ibilbidea Albaolan bukatu du.

Testua: **Iñigo Gaiton**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea eta Albaola**.

**G**ozategik duela ia hamar urte laga zion Mutiozabalen lan egiteari. Orduetik, ez zuen ontziola eraberritua barrutik ikusteko aukerarik izan. Hitzordura iritsi denean, kasu egin eta barrura sartu da segidan. "Hemen baduk gauza bat aldatu ez dena: goizeko

lehen orduko hotza", esan du irribarrearekin.

**Zer oroitzapen dituzu ontziolara etortzen zinen umetako garaiez?**

Gure aita zenak, Agustinek, hemen jarduten zuen lanean, eta gu laguntzera-edo etortzen ginen. Eskolatik atera eta hona hurbiltzeko irrika izaten genuen. Ziurrenik, orduan gu mutil koskorrak izanik, ez ginen oso lagungarri izango aitaren eta lankideen jardunerako, baina gustura egoten ginen haiei begira. Gainera, egur pusketekin eta iltzeekin jolasten uzten ziguten.

**Dibertimentu hura nola pasa zen ofizio izatera?**

Egia esan, gure bueltakoak ez ginen eskolara oso emanak, eta ikasten jarraitzeko gogorik ez nuelako hasi nintzen aitarekin lanean. "Hemen bazagok nahikoa lan!", esan zidan.

**Maisu ona izan al zenuen aita? Pazientziarik ba al zuen erakusteko?**

Bai, bai. Hartzen zuen behar zen denbora.

**Aitaren aurretik, zuen etxean ba al zen erriberako arotzik?**

Ez. Aita baserritarra zen. Itsasoan ibili zen aurrena, eta geroago hasi zen ontzian lanean, Txanka bazkide zuela.

**Nola ikasi zuten baporeak egiten?**

Nire aitaren kasuan, ondo gogoratzen badut, Manuel Elizondo izan zuen maisu. Gaztetan Ortzaikea aldean dezente ibiltzen zen, han baporeak egiten ziren garaian, eta orduan piztuko zitzaion ofizioarekiko interesa. San Juan aldean ere ibilia zela entzuna dut.







Mutiozabal ontziola eraberritua.

**1954-1974 artean, 33 bapore egin zituzten zuen aitak eta bazkideek Mutiozabalen. Nolakoa izaten zen ontziolako eguneroko bizitza?**

Giro bizia izaten zen errio bazterrean, ona. Hainbat jende pasatzen zen hemendik; langileez gain, ezagutu nituen goizean Michelinen lanean aritu eta arratsaldean hona etortzen zirenak. Baserri giroko lagunak ere hurbiltzen ziren, eta gure lehengusuak ere bai. Kuadrillatxoak juntatzen zen, bateko eta besteko. Apustuak ere egiten zituzten.

**Apustuak lanean?**

Bai, bai, lana nork azkarrago egingo. Aitaren zeregina, normalean, baporeen kanpoaldeko oholak prestatzea izaten zen. Bi edo hiru kuadrillatan banatuta, kaskoaren kanpoaldeko egurrak azkarrago nork josi jarduten ziren. Orduko hartan, zazpi t´erdiak aldera meriendatu egiten zuten, eta irabazleek debalde izaten zuten botila ardoa.

**Zer klasetako langileak ziren?**


Kolpe seguruko jendea zen. Benetako profesionalak. Nik askotan esan izan dut, gure

aitaren belaunaldikoez lana jan egiten zutela. Ontziolan eskulanean ari zirenean, etxetik gauzak pentsatuta ekartzen zituztela ematen zuen. Hemen, ez zuten denborarik galtzen. Egia esan, egiten zituzten baporeak antzekoak ziren: aurrenekoak egin eta gero, ondorengoak koskan fabrikatu zituzten, elkarren segidan. Askotan, baporea uretara botatzerako hurrengoaren kila prest izaten zuten.

Nagusiek langileek adina ordu ematen zituzten lanean. Ontziolaren goialdeko ofizinan ez zen inor egoten, denak eskulanean aritzen ziren... Asteburuak aprobetxatzen zituzten paper kontuak egiteko eta soldatak banatzeko.

**Zenbat denbora behar izaten zen baporea egiteko?**

Aitari entzunda dakit, itxurazko kuadrillarekin, bost bat hilabetetan edo egiten zutela kaskoa, asteen sei egunetan lanean arituta. Ez du honekin zerikusi zuzenik, baina beste datu bat ere emango dizut: Albaolan egiten ari garen San Juan baleontziaren tankerakoak sei hilabeteetan egiten zituzten antzina, lanean mila eta bostehun lagunetik gorak jardunda.



Esteban Gozategi Albaolan lanean.

**"GIRO BIZIA IZATEN ZEN ERRIO  
BAZTERREAN, ONA. HAINBAT JENDE  
PASATZEN ZEN HEMENDIK"**

**"ASKOTAN ESAN IZAN DUT, GURE  
AITAREN BELAUNALDIKOEK LANA  
JAN EGITEN ZUTELA"**

**"SAN JUAN DA HUTSETIK EGIN  
DUDAN BAPORE BAKARRA, ETA  
AMORRATZEN NAGO HAREN  
BOTADURA IKUSTEKO"**

**Ezagutza handia beharko da, artisau eran baporea egiteko.**

Beno, ez dakit. Etxea egitea zaila al da? Igeltsero batek ezetz esango dizu. Bada, gauza bera da.

**Botadurak egun bereziak izaten omen ziren.**

Baporea putzutara botatzen zen egunean, eskolan jai izaten genuen arratsaldean, hura ikustera joateko. Jendetza juntatzen zen moila inguruan. Ontziolako langileak marea handien zain egoten ziren, ontzia pasatzeko nahikoa hondo egon zedin. Moilaraino kablea pasatzen zuten kamioiarekin, itsasontziari tiratzeko.

Gogoan ditut botadurei lotutako anekdotak: behin, baporea kateatuta geratu zen. Beste behin, ontziolako sabaia jo zuten poparekin, eta teilatuari pusketa kendu zitzaion. Erritu modura, txanpain botila puskatzen zen baporearen kontra botata, eta oker ez banabil, baten bat bazen botilarekin begi-ondoan kolpea hartutakoa...

**Zer egur klase erabiltzen zuten lanerako?**

Haritza. Seguruenik, Nafarroa aldetik ekarritakoa. Egurrak ontziola ondoan egoten ziren luze-luze eginda, pilan, lehortzen.





Agustin Gozategi aita, Esteban eta Jose Manuel semeak.



Esteban Gozategi.

### **Nolako tokia zen Mutiozabal lanerako?**

Hotza eta hezea. Beti izaten zen korrontea barruan. Orain egituraren zati handi bat harrizkoa da, baina lehen egurrezkoa zen dena, eta zirrikituetatik haize hotza sartzen zen.

### **Zure lanari dagokionez, baporeak egiten baino konpontzen eman dituzu urte gehienak.**

Hori da. Umetan aita eta lagunak baporeak egiten ikusi arren, hamabost bat urterekin Ondozabalenera joan nintzen lanera, eta handik, soldadutzara. Zerbitzu militarra bukatutakoan itzuli nintzen ontziolara.

Ordurako, itsasontziak burniarekin egiten hasi ziren, egurrarekin beharrean. Horren ondorioz, Mutiozabaleko lana konponketak egitera bideratu zuten. Bapore berrietan burnia nagusitu arren, aurreko hamarkadetak egurrezko itsasontzi asko zeuden martxan, eta haien mantenuak lan handia zuen; adibidez, egurrezko hozkailuak eta biberoak usteldu egiten ziren, eta konpondu egin behar izaten genituen. Baporearen egituraren ere izaten ziren konponketak. Dena egur lana.

### **Zergatik hartu zuen burniak egurraren tokia?**

Burnia material gogorragoa da eta mantenu errazagoa du. Egurrari urtero eman behar izaten zaio errepassoa, hauskorragoa delako. Bestalde, burnia seguruagoa izango da itsasoaren aurka joateko, sendoagoa.

### **Orion bakarrik aritzen al zinen lanean?**

Getariako eta Pasaiako moiletan ere bai.

### **Errio bazterrean hainbeste ordu pasata, nabigatzea edo itsasoan ibiltzea gustatu al zaizu inoiz?**

Ez... Behin arrai txikitara atera nintzen lagun batekin, eta trago txarra pasa nuen. Nahiago hankak lehorrean. Beno, arraunean ibili nintzen 1973tik 1977ra arte edo. *Erbestekoak* ginen gu, Lasarte Michelinekoak. Herriko jendearen kontra aritzen ginen lehian. 1973an gure taldeak Kontxako Bandera irabazi zuen, baina ni ordezkoa izan nintzen.

### **Borroka handia izango zenuten herrian.**

Bai, garai batean San Pedro eta San Juan bezala ibiltzen ginen Orioko taldearekin lehian. Orain batek irabazi, gero besteak...

### **Orduan ez zen dirurik izango talde batera edo bestera joatea erabakitzeke. Nolatan joan zinen Lasarte Michelinera?**

Gaztetako kontuak! Gu Ortzakain hasi ginen arraunean, batela zahar batekin. Michelingoak Korta fitxatzera etorri ziren, eta gu han inguruan edo suertatuko ginenez, hara joateko gonbita egin ziguten.





Esteban Gozategi Albaolako beste bi langilerekin egur lanak egiten.

**Soldadutzatik itzulita, hiru hamarkadatik gora egin zenituen baporetan konponketak egiten, 57 urterekin lana bukatu zitzaizun arte.**

Gogorra izan zen. Nora joan behar nuen nik adin horrekin lan eske? Egoera zaila izanagatik, zorte ikaragarria izan nuen. Hemen lanean ari ginen batean Xabier Agotek bisiatu gintuen, eta buruan zuen proiektuaren berri eman zigun. "Egunen batean lanik gabe geratzen bahaiz, deituidak", bota zidan. Hitza hartu nion, eta halaxe suertatu zitzaidan Albaolan lanean hasteko aukera.

**Bukaera ederra eman diozu ibilbide profesionalari.**

Zorte ikaragarria izan dut, bai.

**Euskal Herrian, zu izan zara azkenetako erriberako arotza. Orain, berriz, badirudi ofizioak gazteen interesa piztu duela. Albaolan ikus daiteke hori.**

Han bada indar berria, bai. Orain dela hiru urte zabaldu zuten arotz eskola, eta lehen ikasle taldeak aurten du azken ikasturtea. Hainbat herrialdetako hemezortzi gazte dabilta ofizioa ikasten: Frantzia, Danimarka, Belgika, Grezia...

**Hizkuntza-festa ederra izango zenuen inguruan...**

Bai, bai. Haien artean ederki konpontzen dira ingelesez, baina gu moldatu ezinik ibiltzen gara!

Keinu bidezko hizkuntza unibertsalarekin ulertu izan dugu elkar [Gozategi eskuarekin laneko keinuak egin ditu: mailua hartu, iltzea sartu...]. Kurioso da: atzerriko gazteek hitz gehiago egiten dituzte euskaraz, guk ingelesez edo frantsesez baino!

**Gazte jendez inguratuta hartu duzu erretiroa, beraz.**

Bai. Harreman ona izan dut haiekin, eta sekula ez didate aurpegi txarririk jarri aginduren bat emandakoan. Albaolan bi lan jarri zizkidaten: bat, egitea, eta bestea, erakustea. Biak eginda jubilatuta naiz, azken egunean espero gabeko omenaldia jasota. Jende baten aldetik estimazio pixka bat badudala sentituta bukatu ditut nire lan egunak. Zer gehiago eska dezaket?

**Hemendik aurrera, arrantzale zaharrak bezala, moila bazterrean ikusiko al zaitugu egunero?**

Ez dut uste. Etxean nahikoa lan izango dut, bateko eta besteko. Gainera, ahal dudan guztietan, Albaolara joango naiz boluntario moduan, laguntzera. San Juan baleontzia izan da hutsetik abiatuta egin dudan bapora bakarra, eta amorratzen nago haren botadura ikusteko.

Ikaragarria izango da. ■■■■

# Osasun larrialdiaren aurrean, herri solidarioa

Koronabirusak sortu duen osasun larrialdi egoerak agerian utzi ditu gizartearen gabeziak, baina herritarrak mobilizatu egin dira, elkarlanean egoera zaurgarrienean dauden lagunei laguntzeko. Zaintza sarea sortu dute Orion, eta herritar talde bat osasun langileentzat maskarak eta mantalak egiten ari da.

Testua: **Aiora Larrañaga Solaberrieta.**

Argazkiak: **Aiora Larrañaga Solaberrieta eta Iñigo Gaiton.**

**K**oronabirusak sortutako osasun larrialdiaren eraginez ezohiko egoera batean murgilduta bizi dira herritarrak. Koronabirus kasuak han eta hemen agertzen ari dira azken bi asteetan, eta erakunde publikoek neurriak hartu dituzte gaixotasunaren hedatzea oztopatzeko eta horrela herritar kutsatuen kopurua jaisteko. Martxoaren 15ean, Espainiako Gobernuak presidente Pedro Sanchezek alarma egoera ezarri zuenetik, Hego Euskal Herriko biztanleak berrogeialdian daude, eta ezin dute nahieran etxetik atera. Aginduaren arabera, etxean bakartuta egon behar da, eta soilik atera daiteke elikagaiak eta botikak erosteko, osasun zentroetara joateko, lantokira joan-etorria egiteko, zaintza lanetarako, banketxeetara joateko edota ezinbesteko joan-etorriren bat egiteko. Hala, lau hormen artean bizitzera ohitzen ari dira pixkanaka herritarrak, eta hasiera batean, Espainiako Gobernuak hartutako neurriak hamabost egunez indarrean egongo zirela uste bazen ere, luze joko duela aitortu dute agintariek.

Etxetik ez ateratzeko aginduak guztiz baldintzatu du herritar guztien bizimodua, baina bereziki eragin die adinekoei eta arriskutaldeen herritarrei, COVID-19 gaixotasunarekin ez kutsatzeko ahalik eta zorrotzen bete behar dutelako konfinamendua. Hala, Aian eta Orion ekimen desberdinak antolatu dituzte egoera zaurgarrienean dauden herritarrei laguntzeko asmoz. Aiako Udalak, esaterako, Lur-Alkartasuna Kooperatibak egindako deiarekin bat egin du, eta adinekoei eta behar bereziak dituzten herritarrei laguntzeko zerbitzua jarri du martxan. Izan ere, asko dira erosketa egitera herrigunera iritsi ezin duten aiarrak, eta horiei irtenbidea emateko etxetik zerbitzua abiatu dute, astelehenetik larunbatera. Dena dela, udaletik gogorarazi dute zerbitzua behar



bereziak dituzten herritarrei soilik zuzenduta dagoela. Erosketa egiteko laguntza behar duten aiarrek Lur-Alkartasuna Kooperatibaren egin behar dute eskaera, 943- 83 44 73 telefono zenbakira deituta. Aiako Kooperatibako arduradun Amaia Garitanok azaldu duenez, zerbitzua martxan badago ere, oraindik ez dute eskaerarik jaso. “Zorionez, Aian koronabirus kasu gutxi atzeman dira, eta herritarrak normaltasunez etortzen ari dira erosketa egitera. Hasiera batean, adineko pertsonen zuzendua dago zerbitzua, baina, esan beharra dago, Aiako Gizarte Zerbitzuek urte osoan zehar eskaintzen dutela egoera zaurgarrienean dauden aiarrentzat laguntza zerbitzua, herrian Ospitaletxea bezala ezagutzen duguna. Eta lagun horiek lehendik ere jasotzen dute erosketa egiten laguntzeko zerbitzua”.

### Elkartasuna giltzarri

Orioko Udalak eta herriko eragileek elkarlanean zaintza sarea antolatuta dute beharra duten herritarrei laguntzeko asmoz. 130 boluntario inguruk izena eman dute ekimenean, eta herritarren artean harrera “paregabea” izaten ari dela azpimarratu dute arduradunek. Anuska Esnal alkatearen esanetan, larrialdi egoera ezarri zenean, egoera zaurgarrienean zeuden herritarren beharrei erantzuteko martxan jarri zen Udala. “Hilaren 12an, ostegunean, jakin genuen ostiraletik aurrera herriko ikastetxeak itxiko zituztela. Hezkuntza arloa izan zen erabakia hartzen lehena, baina ohartu ginen herriko gainontzeko zerbitzuak ixtea ere beharrezkoa zela, herritarren segurtasuna bermatzeko. Udalbatza osatzen dugun

Osasun larrialdi egoera ezarri denetik, ilarak sortu dira herriko zenbait saltokitan eta farmazietan.





alderdietako lau bozeramaileok eta udaleko hainbat teknikarik larrialdi mahaia osatu genuen, erabakiak adostasunera iritsita hartzea ezinbestekoa iruditzen zitzaigulako, eta buru-belarri lanean hasi ginen”, azaldu du.

Udal ordezkariak ohartu ziren osasun larrialdi egoerak behartuta herriko zerbitzuak eta baliabideak itxita, lehendik egoera zaugarrian zeuden herritarren testuingurua okertuko egingo zela eta herriko gizarte zerbitzuak ez zirela nahikoa izango oriotar horien beharrei erantzuteko.

Horregatik, larrialdi egoerari

aurre egiteko hainbat batzorde sortu zituzten, tartean herriko zaintza sarea. Orioko alkateak azaldu duenez, “neurri honetako larrialdi egoerak eragin handia izaten dute gizartean, eta oso argi nuen herritarrei laguntzeko herri sareak sortu behar genituela. Horretarako, gaiarekin sentsibilizazio berezia duten herriko hainbat eragilerekin jarri nintzen harremanetan, ostiral gauean bertan”, aitortu du. Hala, Txurruuskiko, Xaltzerak talde feministako eta Gaztetxeko kideei deitu zien besteak beste; larunbat goizean bildu ziren eragileak, eta deialdi irekia egin zuten.

Zaintza sareak egindako deialdiak erantzun “bikaina” izan du Esnalen iritzi; 130 lagunetik gorak izena eman dute dagoeneko Orioko zaintza sarean, eta alkateak aitortu du “ezusteko pozgarria” izan dela berarentzat. “Hasierako deialdia nik egin nuen, mota horretako boluntario sare bat antolatzeko berme juridiko batzuk bete behar direlako. Izan ere, boluntario guztiak segurua izan behar dute, eta ezinbestekoa da ezarritako osasun gomendio guztiak betetzea. Dagokion izapideak egiteko udalaren esku-hartzea oso garrantzitsua da, baina, bulegoko lana bukatuta, boluntarioak dira zaintza sareko protagonistak, horiek gabe ezinezkoa izango litzatekeelako sarea sortzea”.

Gainera, Esnalen iritzi “txalotzekoa da” Orio bezalako herri txiki batean horrenbeste boluntariok izena ematea. “30.000-40.000 biztanleko herrietan Orion lortu dugun boluntario kopuru antzekoa lortu dute. Horregatik uste dut Orio gai izan dela egoera okerrenari aurre eginda, onena ateratzeko. Herri solidarioa garelako erakusten ari gara, zalantzarik gabe”.

### **Zaintza sarearen lana**

Zaintza sareak bi lan ildo jorratu ditu. Alde batetik, 70 urtetik gorako herritarrekin harremanetan jarri da eta horien jarraipena egiten ari da. “Telefonoz deitu diegu banan-banan, baina datuak babesteko legea errespetatzea ezinbestekoa denez, udalak mekanismo guztiak jarri ditu martxan lagun horien konfidentziasuna bermatzeko. 70 urtetik gorako herritarrei deitu diegunean asko eskertu digute zer



Konfinamendu egoeran, herrietako kaleak hutsik daude.

Zaintza sareko boluntario bat erosketa egiten.

moduz dauden galdetzea eta boluntario sarearen inguruko informazioa ematea”, azaldu du Esnalek. Gainera, gizarte zerbitzuak ere indartu egin dituzte, lanez gainezka dabiltzalako egunotan. “Izan ere, arreta profesionalizatu behar duten kasuak Gizarte Zerbitzuetatik kudeatzen ari dira, eta gainontzekoei zaintza sareak laguntzen die”, nabarmendu du alkateak. Dena dela, aitortu du herritarrekin harremanetan jartzeko orduan hainbat zailtasun izan dituztela. “Udalan herritarren etxeko telefono zenbakiak ditugu, baina etxe askotan horiek erabiltzeari utzi diote. Horregatik, oraindik hitz egin ez dugun herritarrekin harremanetan jarri nahiko genuke”, azaldu du Esnalek. Beraz, 70 urtetik gorako oriotarren batek oraindik zaintza sarearen deirik jaso ez badu, 642 409 422 telefono zenbakira hots egin dezake boluntario taldearekin harremanetan jartzeko.

Bestetik, erosketak egiteko zerbitzua ere martxan jarri du zaintza sareak. “Zerbitzua ez dago adinekoei soilik zuzendua. Familia bakoitzak bere arazoak ditu, eta laguntza behar duten herritarren beharrei erantzutea da asmoa. Helburua da ahal den heinean herritarrak etxetik ez ateratzea. Adinekoez gain, seme-alabak dituzten gurasobakarreko familiek ere, erosketa egitera ateratzeko arazoak izan ditzakete, haurrekin etxean bakarrik daudelako. Horiek ere erabil dezakete zaintza sarearen zerbitzua. Hainbat errealitate bizi dituzte herriko familiek, eta laguntza behar dutenei laguntzeko sortu da sarea”. Hala, Udalak eta zaintza sareak elkarlanean protokolo bat zehaztu dute erosketak segurtasun neurriak errespetatuz egiteko. “Protokoloa fintzen joan gara egunak pasa ahala. Boluntarioek eta erabiltzaileek zuzeneko harremanik ez dute izaten, etxean daudenek osasun gomendioak bermatuta izatea nahi baitugu. Horregatik, erosketa atean uzten zaie erabiltzaileei, baina ondoren telefonoz deitzen zaie, zerbitzuarekin gustura geratu diren eta ondo dauden jakiteko. Orain arte oso harrera ona izan du zerbitzuak, eta eskertuta agertu dira erabiltzaileak”, azaldu du Orioko alkateak.

### **Indarkeria matxista jorrazeko batzordea**

Zaintza sareaz gain, indarkeria matxista jorrazeko batzordea ere martxan da herrian. Izan ere, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan hirukoiztu egin dira indarkeria matxista kasuak, isolamendu egoeraren ondorioz. Horregatik, Orioko Udalak lan ildo hori martxan jarri du, Xaltxerak talde feministak eta Ahalduntze Eskolak kudeatuta. “Ahalduntze Eskolatik konfinamendu egoeran areagotzen eta larritzen ari den indarkeria matxistari erantzuna emateko telefona jarri dugu martxan”, azaldu dute Eider Goiburu eta Aizpea Esnaola arduradunek. Indarkeria matxista jasan dutelako laguntza behar duten emakumeek 623178553 telefono zenbakira deitu dezakete, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 20:00etara. Horrez gain, [ahalduntzeeskola@orio.eus](mailto:ahalduntzeeskola@orio.eus) e-postara ere idatzi dezakete.

Bestetik, herrian sortu den zaintza sarearen garrantzia ere azpimarratu dute Goiburuk eta Esnaolak. “Birus batek krisi egoera honetara eraman gaituela diote... Ez da egia, sistema kapitalista-patriarkalak eraman gaitu krisi egoera honetara”. Gizarteak



Arranpla ondoko haurren jolastokia hutsik.

**ZAINTZA SAREAK  
EGINDAKO DEIALDIAK  
ERANTZUN "BIKAINA"  
IZAN DU ORIOTARREN  
ARTEAN**

**KONFINAMENDU  
EGOERAN INDARKERIA  
MATXISTARI AURRE  
EGITEKO BATZORDEA  
ABIATU DUTE**



Martxoaren 13tik itxita daude herriko aisialdiguneak.

aspalditik bizi duen zaintza krisia agerian geratu dela nabarmendu dute. “Mugimendu feministak urteak daramatza bizitzak eta zaintzak erdigunean jartzeko aldarrikapenak egiten. Gizakiak interdependienteak bagara ere, bata bestearen beharra dugu bizirauteko, eta horrelako egoeretan nabarmendu egiten dira gure dependentziak. Zorionez edo zoritxarrez, krisialdiak eraldaketa sozialerako aukera izan daitezke. Orion herritarren zaintza sarea sortu da, sare horretan herritar guztien bizitzak eta zaintzak erdigunean

jartzeko erabakia hartu da: behar dutenei erosketak eginez eta 70 urtetik gorako pertsoneri deiak eginez, ea zer moduz dauden galdetuz eta telefono zenbakiaren berri emanez”. Gainera, azpimarratu dute herritar sareko boluntarioen arteko zaintza eta elkar-babesa bermatzeko ere erabaki batzuk hartu direla. Berdintasun teknikariek uste dute herritar sareak jendarte hobe bat eraikitzeko bideak zabal ditzakeela, “herritarren elkartasuna eta elkar-zaintza bezalako balioak indartuz. Hala ere, esan beharra dago zaintza sarean ere agerian geratu dela genero arteko arrakala, bertan parte hartzen ari diren gehienak emakumeak baitira. Gune hau benetazko eraldaketa sozialerako gune izango da baldin eta gizonek ere zaintzen ardura beren gain hartzen badute. Ahalduntze Eskolatik krisi hau sistema iraultzeko aukera bezala ikusten dugu, aprobeitza dezagun balioetan oinarritzen den herri hobe bat eraikitzeko!”.

Ahalduntze Eskolako kideek bezala, larrialdi egoerak ikasteko eta etorkizunari begira beste gizarte eredu bat eraikitzeko balio behar duela uste du Esnalek ere. “Nik urte askotan zehar egin dut lan larrialdien arloan, eta beti pentsatu izan dut larrialdiek, ondo kudeatuz gero, egoerak hobetzeko balio dutela: elkar ezagutzeko, zaintzeko eta beste harreman mota batzuk sortzeko balio behar digu bizi dugunak, gizarte hobe bat eraikitzeko, alegia”. Orioko alkatearentzat “zoragarria” da herritarrak elkarri laguntzen ikustea. “Krisia gogorra izaten ari da, baina lehen ez zegoen giroa nabari da auzoetan. Bakoitza bere etxean badago ere, inoiz baino gertuago gaude elkarrengandik. Badirudi denboran atzera egin dugula”. Nork bere ziliborrari begiratzeari utzi, eta guztiek elkarrekin arraunean egitearen garrantzia agerian utzi du larrialdi egoerak, eta “komunitate izaera idartzeko” balio duela argi du Esnalek. “Egoeraren larritasunaz jakitun, oriotarrak zorrotz betetzen ari gara emandako agindu eta gomendioak, eta ohartu gara zenbat eta hobeto bete jarraibideak, motzagoa izango dela konfinamendua. Horregatik, egiten ari diren ahalegina eskertu nahi diet herritarrei”.



## Orioko jostunak buru-belarri lanean

80 lagun inguru ari dira osasun langileentzat materiala egiten. Taldeko irakasle Rosaura Bravok taldekideak egiten ari diren ahalegina aitortu eta eskertu du.

Koronabirusak hankaz gora jarri du gizartea eta agerian utzi ditu osasun sistemaren gabeziak. Ospitaletako, osasun zentroetako edo adinekoen egoiztetako osasun langile asko beharrezkoak diren babes pertsonalerako neurriak hartu gabe lanean ari dira, materiala falta delako. Hala, herri ekimenetik sortuta, Ostargi joskintza taldeko kideek osasun langileentzat maskarak eta mantalak egiteari ekin diote norbere etxetik. Rosaura Bravo irakasleak sare sozialen bidez bidaltzen dizkie osasun arloko materiala egiteko bideoak, eta arrakasta izaten ari dira eskualdean. Orion ez ezik, inguruko herrietako jostunengana ere iritsi baita ekimena. "Taldeen erizain batzuk ditugu, eta mezua iritsi zitzaigun Donostiako osasun zentroetan mantalik gabe lanean ari zirela azalduz. Segituan jarri ginen martxan". Mantalak etxean egin ahal izateko hainbat bideo ikusi zituen joskintza irakasleak, eta ohartu zen nahiko zailak zirela taldeko kideentzat, asko jostun hasiberriak direlako. "Buruari bueltak ematen hasi zen, eta plastikozko poltsa handiekin mantalak modu errazagoan egin zitezkeela konturatu zen Bravo, eta ikasleei bidali zien jarraibideak azaltzen zituen bideo txoa.



Rosaura Bravo osasun langileentzat maskarak josten. UTZITAKOIA

Horrez gain, osasun langileentzat maskarak ere egiten ari dira joskintza taldeko kideak. "Erizainak diren lagunak ditut; ez dute koronabirusa duten gaixoeekin lan egiten, baina nabarmendu didate oso garrantzitsua dela babes neurriak hartzea. Ez kezkatzeko esan diet, eta maskarak egiten hasi gara. Jakin badakigu telazko maskarek ez dutela besteak bezain beste babesten, baina ezer baino hobekia dira". Orion 80 lagun inguru ari dira osasun langileentzat materiala egiten, eta oso pozik dago Rosaura Bravo irakaslea, "ekimenak harrera paregabea" izan duelako joskintza ikasleen artean. "Eskerrak eman nahi dizkiet taldeko kideei, deia egin orduko lanean hasi zirelako eta, zailtasunak zailtasun, ahalegin handia eginez helburua lortzen ari garelako. Txapeldunak dira denak", nabarmendu nahi izan du Bravok.

### Materiala lortzeko zailtasunak

Laguntzeko eta lana egiteko gogoz gainezka daude Orioko jostunak, baina hainbat oztopo ere aurkitu dituzte bidean. "Mantalak eta maskarak egiteko materiala falta zaigu. Telak eta joskintzako materiala saltzen dituzten dendak itxita daude, eta etxetik atera ezin dugunez, materiala lortzea zaila izaten ari da. Badakit herriko amona batzuk etxean dituzten maindire zuriak emateko prest agertu direla, eta Argiñe Azkaratek maskarak egiteko beharrezkoa den elastikoa ere eskaini digu". Bravok "bihotzez" eskertu du herritarren keinua. Horrez gain, esan behar da herriko jostunek eskuartearen duten proiektua ez dela Ostargi taldeak egin duen lehen ekimen solidarioa, duela hilabete eskas Saharako errefuxiatu kanpamenduetan bizi diren emakumeentzat konpresa ekologikoak egiten aritu baitziren. ■

# ITZIAR KIROLAK



Eusko Gudarien kalea, 23 · ORIO  
943-83 31 03

# Egin zaitez KARKARA laguntzaile

## Zergatik KARKARA laguntzaile?

- Nire herriaz kalitatezko eta gertuko informazioa jasotzen jarraitu nahi dudalako. Hilero nire etxean eta uneoro **karkara.eus**-en.
- Euskaraz bizi nahi dudalako eta euskararen biziberritzea bultzatu nahi dudalako.
- **KARKARA**laguntzailearen abantailez gozatu nahi dudalako.

**KARKARA**laguntzaile izateko deitu **688 85 96 82** zenbakira edo idatzi **karkara@karkara.eus** helbidera. Urteko kuota: 36 euro.

Hil honetako  
KARKARA laguntzaile  
zozketak:

## Errigora

3 otar  
2 pote tomate, 2 pote menestra eta 2  
pote orburu




## PARTE HARTZEKO:


Deitu 688 85 96 82 zenbakira edo idatzi **karkara@karkara.eus** helbidera. Parte hartzeko epea gaurtik urtarrilaren 3ko eguerdiko 12:00ak arte. Irabazlearen izena KARKARAKO hurrengo zenbakian argitaratuko da. KARKARA laguntzaile eta KARKARA laguntzaile berrientzat bakarrik.



## PUBLIZITATEA



Karta  
Pintxo tradizionalak  
Okindegia



Palota Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943-53 61 27

### MENDIZABAL AROTEGIA

Neurriko armairuak eta egurlanak

Altzerri bidea, Beti-Alai etxea · AIA-ORIO  
943-83 11 75 · 645 70 84 91  
mendi@arotzgi.net

### OINARRI PODOLOGIA ZENTROA




Arrantzale kalea, 63 behea  
ORIO  
943-57 53 61  
oinarri@podologia-oinarri.com  
www.podologia-oinarri.com

### Oreka

fisioterapia

Eusko Gudari, 54 · 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa  
Eskuzko terapia · Talka-uhinak  
Masaje terapeutikoa · Osteopatia



ORIA  
hortz klinika

Arrantzale kalea, 63 behea  
ORIO  
943-83 36 45

Oria Hortz Klinikak **ORTODONTZIA**  
zerbitzu berria jarri du martxan.

Prebentzioa ezinbestekoa dela  
jakinda, hartu aurre etorkizunean sor  
daitezkeen arazoet.



Orioko  
Herri  
Ikastola

Herri Onurako Kooperatiba

Abeslari kalea, 8  
943-83 47 04  
Fax-a: 943-13 09 38  
orio@iikastola.eus  
www.oriokoikastola.eus



PAKO IMAZ

pertsianak

**PERTSIANAK**  
aluminioa  
motorrak  
automatismoak  
konponketak

600 70 52 27 · 943-13 29 01  
pakoimaz@hotmail.com · ORIO



%100 etxean egina  
PIZZERIA  
KALETA

Arrantzale kalea, 10 943-24 89 46

### ZINKU ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzen erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

deitu eta eskatu aurrekontua  
konpromisorik gabe

Ander Zinkunegi  
667 74 02 79



### Portu

Erretetgia - Jaitzea

Kazolitak, baserriko oilaskoa,  
parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g · AIA  
943-89 44 34

# Balkoiak



GARBIÑE MANTEROLA

**A**maaaaaaaaaaaaaa!!!!!!!  
 Hala deitzen nion amari etxepetik eskolatik bueltan. Ez nintzen iristen etxeko tinbrea jotzera. Aurreneko pisuan bizita ere, urrutitxo zegoen botoi biribila. Nire birikak baziren nahikoa indartsu, eta tira, moldatzen nintzen. Halako batean ateratzen zen gure ama, nire irribarre gosetua ikusi eta atea irekitzen zigun.

Hirugarren pisuan bizi zen *goiko-Gorka*. Horrela deitzen diogu Puertastarren txikienari gurean. Elkarrekin egiten genuen askotan etxerako buelta. Gela berean ikastearen bentajak. Eguerdi batean, balkoi azpira iritsi eta marrua egiteko pronto nintzela, ezetz esan zidan Gorkak. Ez egiteko halakorik. Portal parera eraman ninduen eskutik helduta.

Ekilibristarena egiten hasi zen bat-batean. Oin punta portaleko koskan jarri, gorputza Plastikman bezala luzatu eta tinbrea jo zuen. Hori bai, nire etxekoa izan zen zapaldu zuena. Hazi egin zela erakutsi nahi izan zidan, baina oraindik hirugarren pisuko tinbrea ezin konkistatu. Ez dakit zenbat urte izango nituen artean, baina iltzatuta geratu zitzaidan haren estanpa. Koska bat gorago ikusi nuen mutila.

Martxoak 19 du gaur, osteguna. 2020. urtea. Gutxitan bezala, gurasoeneko portala parez pare irekita topatu dut. Utzi dut telazko poltsa beraien ateko heldulekuan zintzilik eta kalera jaitsi naiz. Ogiatz eta egunkariatz gain bizkotxo puska bana ere sartu dut gaur. Limoizkoa. Aitaren eguna da, eta gustuko du hark gozoarekin ospatzea.

Amaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaa!!!

Berriz ere etorri da balkoitik kalera eta kaletik balkoira hizketan jarduteko garaia. Ezin sinesturik gaude oraindik, baina etorri da koroadun mamua. Etxean gotortu behar izan du jende askok. Tartean gure bi gurasoek. Eta komeni ez gu bisitan azaltzea. Ez behintzat gertutik. Hala ere, enkarguak eramaten dizkiedan aldiero umetako jolas hura errepikatzen dut. Jolasa edo beharra zen orduan. Beharra den jolasa bihurtu dut orain. Zuzenean elkarren irribarrea ikustearren jolas txikia.

Mila kanal ditugu eskueran: telefonoa, uatsapa, mila programa ordenagailuan elkarren barre-algarak eta negar malkoak zuzenean ikusi eta entzuteko. Lagunartean, familian eta lankideen artean zenbat aldiz esan ote diogun elkarri teknologia zenbat aurreratu den. Zenbat arindu digun gure etxean errefuxiatu bihurtu garen aldi hau. Zenbat erraztu konfinamendu amesgaiztoko hau.

Bai. Ezin esan kontrakorik. Baina enkargu osteko balkoiko bost minutu horiek urrea balio dute. ■■■

**BERRIZ ERE ETORRI DA  
 BALKOITIK KALERA ETA  
 KALETIK BALKOIRA  
 HIZKETAN JARDUTEKO  
 GARAIA**



## M8 egunero da

**B**i greba orokor potentetatik gatoz. Aurten, igandea izaki, M8 ez da greba eguna izan -ez ditugu ahazten hala ere etxeko langileak, manifestazioko aldarrietan argi geratu zen bezala, *ez gaude denak, internak falta dira!* eta ez du hainbesteko oihartzuna izan, esaterako, komunikabideetan.

Eta bagatoz, baita ere, beste hainbat aurrekari garrantzitsutatik: iazko azaro hasieran Durangon ospatu ziren *Salda badago* Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministak; Azaroak 25eko Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna; eta aurtengo urtarrilaren 30ean Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak deitutako greba orokorra. *Continuum* batean

bizi gara. Horregatik, uste dugu testuinguru horrek eragina izan duela M8ko antolakuntza prozesuan. Bilera irekietan aurreko urteetan baino jende gutxiago bildu gara, esaterako. Esan behar da, hala ere, nomalean antolakuntzan jende gutxiago biltzen dela mobilizazioetan baino. Beti da horrela.

Bestetik, M8aren inguruan antolatutako egitaraua oso zabala zen, martxoan hasi eta apirilean bukatzen baitzen, berez. Esan gabe doa ospatzekoak ziren ekintza guztiak oraingoz bertan behera geratzen direla koronabirusak eragindako krisiagatik. Honek, M8tik harago doan balorazio orokor bat egitea galeraztzen digu.

Hala eta guztiz ere, feministok kontent gaude M8arekin eta

horren bueltan bizitako guztiarekin.

M7 gaueko manifestazioa oso zirrargarria eta hunkigarria izan zen. Lanbro artean ahaldunduta sentitu ginen gauak gureak direla aldarrikatuz. Lehenengo aldia zen horrelako zerbait egiten zela Orion, eta sorpresa handia eraman genuen. M8ko bazkarian bildu ginen emakumeetako baten hitzak erabiliz, "...eta pausoak aurrera zihoazen heinean, lehenengo etxeetako argi eta farolekin batera, pausoak sendoagotzen hasi ziren. Norbanakoak eta lagun taldeetako trinkotzen joan ginen. Leloak oihu bilakatu ziren, ez zen hasierako lotsarentzako lekurik. Ausardiak eta ahizpatasunak bete zuten dena. (...) Etxera iritsi nintzenean, Euskal Akelarretik

## HAUXE BAI JENEROA!





bueltatu zen sorgina sentitu nintzen”.

M8an, egun osoan zehar okupatu genituen kaleak emakumeok: txokolate banaketa eta zumba eskola jendetsua izan genuen Aritzaga kalean, eta ustekabean korrika egiten pasa zen emakumea eta bertan geratzea erabaki zuena bezalako une gogoangarriak utzi zizkigun; eguerdiko manifestaziorako materiala sortzeko topaketan familia asko gerturatu ziren, giro polita sortuz; *manian* aniztasun kulturala nabarmendu zen eta jende dezente hurbildu zen; Gaztetxe kanpoan eguraldi onarekin ospatu genuen bazkarian ere adin desberdinetako emakume asko bildu ginen (eskerrik asko Gaztetxe emakumeei zuen laguntzagatik!) eta bazkal

ondorengo mikro irekia parte hartzailea izan zen.

Zorionak, beraz, prozesu osoan zehar parte hartu duzuen emakume guztiei, bai antolakuntzan aritu zaretenei, bai egunean zehar ardura desberdinak hartu zenituztenei ere. Ezin dugu esan gabe utzi, ordea, M8 eta hiru egunetara, Euskal Herrian indarkeria matxistarekin lotutako aurtengo lehen hilketak eman zirela: ama-alaba batzuk hil zituen gizonezko batek Abanton; eta hilaren 16an beste gizonezko batek bere ama hil zuen, Sorraluzen. 2003an kontaketa hasi zenetik, 105 emakume hil dituzte Euskal Herrian.

Martxoak 8 egunero da.

Emakumeok, atek irekita dituzue Xaltxerak taldera elkartzeko. Antolatu indarrak, batu borroka feministara! ■

## NIRE HONETAN



IÑIGO GAITON

## Su goxoan

**E**steban Gozategiri duela bi aste egin nion aldizkariak dakarren elkarrizketa. Berriketa saio ederra izan genuen, Mutiozabal ontziolaren kanpoaldean. Ez nuen aurretik ezagutzen, eta hasiera batean, gizon isilkorra iruditu zitzaidan; hitzekin baino, eskuekin gehiago esan edo egindakoa. Duela gutxi, Albalan lanean aritutako Donostiako gazte batekin egokitu nintzen, eta Orioko berri eman nionean, berehala bota zidan Estebanen izena. Zeruan jarri zuen. Umetan, munda tradizionala bertatik bertara ezagutu zuen Estebanek, eta Euskal Herriko azkenetako erriberako arotza izan da. Momentu honetan, bere esperientzia eta ezagutza zabala itsas ondare bizi-bizia dira.

Konfinamendua hasi eta bi egunera, elkarrizketa transkribatzen hasi nintzen etxeko epelean. Koronabirusak eragindako egoera aldrebesaren aurrean, grabagailuko hitz eta kontu zaharrak su goxoa bezala sentitu nituen, eta ikaragarri gozatu nuen idazketa lana. Ordenagailuan lanean aritu nintzen bitartean, umetan munda zaharrean ibilitako beste batzuen ahotsak eta erretratuak ere etorri zitzaizkidan gogora; horietako askorentzat, osasun krisi hau latza ari da izaten benetan. Besarkada bana guztiei. ■



## PUBLIZITATEA



**Sagasti**  
LEIHOAK

Tel. 943 13 00 77 - Fax 943 53 71 50  
sagasti@sagastileihok.com  
Arrantzale kalea, 65  
20810 Orio

www.sagastileihok.com

Roberto Sagasti

**Kalitatezko materialak**  
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa  
Salmenta osteko zerbitzua

**SU KIA**  
TABERNA · JATETXEA

Eguneko menua  
Asteburuetakoa  
Oilaskoak eramateko  
Ogitartekoak  
Plater konbinatuak  
Terraza ederra  
(alboan umeentzako parkea)

Abaromendi 38, behea 1  
ORIO · 943-89 21 29



**Seguros Bilbao**


Santi Barranco  
Orioko Ordezkarria

Endaia Enparantza, 1 · ORIO · sbarranco@segurosbilbao.com  
943-11 16 00 · 688 71 48 69





**Zaragueta IPI**  
HERRI ESKOLA 2-16

943-89 40 52  
012137aa@hezkontza.net



**Sinergia**  
fisioterapia eta ikerkuntza

Ibai ondo, 1 behea · ORIO  
943-13 05 77 · 685 71 85 95  
sinergiafisioterapia.com ·  

- **Lesioak:** bihurdurak, tendinitisiak, zaintiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaixotasunak haur eta helduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekupezioa.
- **Tratamenduak:** terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesoaping-a, pilates, abdominaletako gimnasia hipopresiboa (GAH), REDCORD.



**XS Arkitektura**

www.xsarkitektura.com

herrikobarra, 11 behea · ZARAUTZ · 943-13 43 58

eraikuntza zerbitzuak  
eraikinen mantenua  
errehabilitazioak  
proiektuak  
txostenak  
ITE-ak  
obrak



**K·U·K·U·A·R·R·I**  
ELEKTRIZITATEA

943-10 01 81 · 640 28 13 08  
Zigordia, 52 behea C · ZARAUTZ  
kukuarri@kukuarri.com



**XIXARIO**  
Erregetia

Txuleta eta arrainak  
parrillan

Eusko Gudarien kalea 2 · ORIO · 943-83 00 19

**Ttipi**

Eusko Gudarien, 15  
ORIO  
943-25 96 95

**ttapa**




**EARMENDIA**

Higiezin Agentzia  
Aholkularitza  
Aseguruak

943-83 44 66 · 688 75 59 48  
Ibai Ondo, 1 · ORIO  
info@egarmendia.com

Jarri zure  
iragarkia

**KARKARAn**

943-83 15 27

# Orio eta euskararentzako aukera



**ADRIAN GARCIA MELERO**

ORIOKO UDALEKO TURISMO TEKNIKARIA

Dena airean geratu da; ziurgabetasunak denon egunerokoa zartatu du egun pare baten bueltan, ohitura sakratuenak ere etxeko lau hormen artean itotzeraino. Hori bakarrik ez: Covid-19 eritasunak sortutako pandemiak ekonomia hankaz gora utzi du, eta jarduera kaltetuenen artean dago turismoa. Argazkia ikaragarria da: herriko ostatu guztiak itxita daude. Luzaroan ez da turistarik espero.

Okerrena heltzeaz omen dago, baina dagoeneko hasiak dira agintariak ondorena prestatzen. Beste erremedioren ez dago. Nahiz eta negua dezente luzatu, berriro argituko du noizbait, eta beharrezkoa izango da zauriak sendatzea. Horretan turismoak rol garrantzitsua joka dezake, galdu diren lanpostuak errekuperatzeko eta aberastasuna modu justuan banatzeko.

Azken urteetan turismoaren ikuspegi ezkorra nagusitu da zenbait alorretan, eta ez da harritzekoa; gunee batzuetan ikusi da hazkunde basati eta desorekatuak bertakoei ekar diezazkiekeen albo-kalteak. Haatik, gehienetan jarduera ekonomiko soil gisa ikusia izan arren, turismoa hori baino gehiago ere bada: elkartruke

kultural bat da. Bisitariak ez ditu bakarrik hondartzak eta monumentuak bisitatzen, ostatu hartzen duen herriaren giroak ziprztintzen du. Eta hor, euskaldunon eskaintza oso berezia da, bakarra.

Horretan jarri nahi zuen indarra Orion eta Urola Kostan abiatzeaz zen kanpainak: Ongi etorri euskararen herrira! Eskaintza turistikoan euskara lehen lerroan jartzea da helburua, baliabide turistiko giltzarri baten moduan. Salbuespenezko egoera honek proiektua atzeratzera behartu gaitu, ez dakigu ziur noiz arte. Baina egin egingo dugu, sinesten dugulako desberdintzeko modua dela gure hizkuntza, kanpotarrei erakusteko dugun ondare preziatua. Erabat bat dator Orion sustatu nahi dugun turismo motarekin.

Horrelako egitasmoetan beti dago arriskua hizkuntza artifizializatzeke, ezin daiteke hori ezkatatu. Ez da hori asmoa, inondik inora ere; mimos diseinatu da estrategia, eskualdeko turismo eta euskara teknikariek elkarlanean.

**HERRI EUSKALDUN  
BATEAN EGOTEAREN  
ESPERIENTZIA  
HELARAZI NAHI DUGU**

Bisitariak presentzia duten guneean euskara bistaratzea da helburua, mezu simple batzuen bidez hitz bat edo beste erabiltzeko gonbita eginez. Halere, ez da komunikazio kanpaina soil izango: herri euskaldun batean egotearen esperientzia helarazi nahi diegu bisitariari. Alegia, kontua ez da ingurune euskaldun baten itxura ematea, baizik eta benetan norbera den bezala erakustea. Finean, horren bila dator turista: giro autentiko bat ezagutzera. Turismo bulegoan ikusten da; handia da kanpotarrek euskararen inguruan duten jakin-mina. Horri tiraka, badugu aukera ederra gure nortasuna erakutsi eta euskara dagokion lekuan jartzeko.

Horretan bidelagun ezinbestekoak dira turismo eragileak. Alojamentuak, tabernak, jatetxeak eta dendak proiektuan inplikatzeko garrantzitsua da, azken batean haiek direlako herriaren erakuslehoak eta oriotarren nortasunaren enbaxadoreak. Horrexegatik lehentasunezkoa da une zail hauetan haien negozioak nola edo hala babestea. Ezinbestekoa da erakunde publikoek laguntzea, bizirik iraun diezaioten krisiaren gogorrenari. Ondoren, bakoitzaren ardura izango bere harrizkoa jartzea; herrian kontsumitzeko hautua egitea alegia. ■■■



# Familiatik datorkiguna



**TESTUA:** ESTIBALIZ ARRUTI LAZKANO

Lehengo batean, familia harremani buruz hitz egiten ari ginela, psikologiako kontzeptu bat etorri zitzaidan gogora. Gure jokabide, harremantzeko era, sufrimendu eta abarrak hobeto ulertzen lagungarria izango delakoan, artikulura ekartzea erabaki dut. Atxikimendua da ideia hori; gaztelaniaz, *apego*.

Pertsonon izaera behar bezala aztertzeke, oinarritzkoa da familia harremani erreparatzea. Familia unitateak garrantzia handia du nor eta nolakoak garen ulertzeko, besteengandik espero duguna definitzeko edo harremantzeko era zehazterako garaian. Gurasoek seme-alabei hitz egiten dieten moduak, helduen motxilak —historiak—, era kontziente edo inkontzientean transmititzen diren baloreak edo elkar maitatzeko moduak eragin handia izango dute pertsona bakoitzaren garapenean; haurtzaroan, batez ere.

Atxikimendua haurraren eta hurbilen dituen zaintzaileen —normalean, gurasoak— artean garatzen den lotura afektiboa da, eta osagarri biologikoak eta psikologikoak ditu. Eraikuntza nahikoa konplexua izan ohi da pertsonengan. Atxikimendua

umearen lehen urteetan finkatzen da, eta garai horretan sortzen denak, eragina izango du bizitza osoan zehar.

Kontzeptua Mary Ainsworth psikologo eta doktore amerikarrak sortu zuen 1967an, baina atxikimendu terminoa aurrerago jarri zioten. Ume txikiek estimulu desberdinekiko zituzten jokabide eta erantzunak deskribatu eta sailkatzeko ahalegina egin zuen Ainsworthek. "Egoera arrotza" deitu zion bere behaketari, inork Interneten informazio gehiago bilatu nahi badu. Hiru taldetan sailkatu zituen haurren jokabideak eta erantzunak: seguruak, larritasun handiko anibalenteak eta ekiditezkoak. Hirurek eskala osatzen dute, kasuaren edo egoeraren arabera pertsonak multzo batean, bestean, edo multzoen artean kokatzeko. Geroago, laugarren multzoa ere gehitu zen: atxikimendu nahasia.

Ainsworthek behaketa haurrekin egin arren, gerora, atxikimenduaren teoria adin

## **PERTSONON IZAERA AZTERTZEKO, OINARRITZKOA DA FAMILIA HARREMANEI ERREPARATZEA**

guztietan aplikatzen da, pertsonak multzotan banatuz. Atxikimendu segurua duten pertsonak orientazio seguru eta optimista izaten dute, eta gehiago edo gutxiago, erraztasunez hurbiltzen dira besteengana, eroso. Ondo kudeatzen dute besteekiko dependentzia, eta besteek beraiekiko dutena ere bai. Ondo toleratzen dute bazterketa. Bigarren multzokoek, besteen babesa eta gertutasuna indar handiarekin desiratzen dute. Zalantza handiak izaten dituzte harremanetan duten rolaz eta besteek haiengan duten iritziak. Hirugarren taldeko pertsonak ez dira eroso sentitzen gertuko harremanetan, eta gaizki kudeatzen dute beste batekiko izan dezaketen dependentzia. Emozionalki distantziarekin jokatzeko lehenesten dute.

Gizaki sozialak garen heinean, harremanetan nola jokatzeko dugun ezagutu eta ulertzeak asko balio du; besteak beste, eguneroko bizitzako egoera eta esperientziei aurre egiteko. Gurasoengandik jaso duguna aztertzea oso baliagarri izango zaigu autoezagutzarako, tarteka, gustatzen ez zaizkigun gauzak onartzera behartuko bagaitu ere. Motxilak zer daramagun ondo jakinez gero, orekatuago eta osasun mental hobearrekin biziko gara. ■



# Lankidetzaz giltza

MARIJE GURE MAISTRA

**Z**enbat urte daramatzazu irakaskuntzan?

39 urte daramatzat guztira, eta horietatik 35, Zaraguetan.

**Zertan aldatu da irakaskuntza orokorrean urte hauetan?**

Lehen egoten ez ziren gaiak azaldu zaizkigu eskoletan, hala nola, ingurumena, hezkidetzaz, kultur aniztasuna, teknologiaz... Bestalde, lan egiteko moduak aldatu behar izan ditugu, eskola guztientzako delako eta tokia egin behar zaielako denei: berdin du zein ezaugarri edo hizkuntza, kultura, erlijio edo urritasun eduki. Derrigorrezko irakaskuntza lehen 14 urte bitartekoa zena, orain 16ra zabaldu da. Horrek ere beste aldaketa batzuk ekarri ditu. Beste aldaketa handi bat izan da momentu honetan ikaslea bere osotasunean hartzen dugula.

**Irakaslearen papera nola aldatu da?**

Gaur egungo irakasleok etengabeko prestakuntza batean egon behar dugu. Gure esperientziatik egoki iruditzen zaiguna jaso, baina berriekin esperimentatu behar dugu eta horiekin moldatzen jardun. Motxila batean daramagu orain arte egindakoa, baina motxila hori berritzen dugu une oro. Irakasleok gero eta gehiago elkarrekin lan egin behar izaten dugu eta ondoan psikologoak,

hezitzaileak, udala eta gurasoak ditugu besteak beste. Denen arteko lankidetzaz beharrezkoa da.

**Ikasleen profila ere aldatu da?**

Nik esango nuke ezaugarri batzuk aldatu direla, baina luze joko luke gauza horiez hitz egiteak. Hala ere, irakaslearen ikuspegitik saiatzen gara gure ikasleak gero eta aktiboagoak izan daitezten, eta horretarako uzten diegu beraiei ardura gehiago hartzen, lanak planifikatzen eta antolatzen.

**Ikastetxearen baliabideak ere aldatuko ziren.**

Bai, asko, eta horien artean azpimarratzekoa da teknologiaz ekarri duen aldaketa nabarmena. Zenbait lan asko erraztu dizkigu, baina erabilpenarekin batera beste gai batzuk sartu dizkigu ikasleekin jorratu beharrekoak: mugak jartzea edo kritikotasuna lantzea, adibidez.

**Zer eman eta zer kendu dizu lanbide honek?**

Haurrekin lana egiteak izugarriko bizipoza ematen du, eta beraiek ere zoriotsu daudela ikusteak, aurrera nola egiten duten ikusteak zentzu guztia ematen dio gure lanari. Bestalde, oso lankide onak eduki ditut eta plazer handia izan da haiekin aritzea. Eta kendu...noizean behin loa, kezka ere bai... Baina guztira gehiago da emandakoa, dudarik gabe. ■■■



## Martxoak 8

**A**urten ere iritsi da Emakume Langileen Nazioarteko Eguna. Baina ez al dugu ekintza sozial batean bihurtu?

Milaka emakume izaten dira erasotuak maila guztietan egunero; lanean, etxean, kalean... Baina gehiengoak egun honetan bakarrik hitz egin edo arreta jartzen du. Eguna iristean, manifestazioak, errebindikazioak eta beste zenbait ekintza egiten ditugu, baina jende asko, eguna iritsi arte, ez da konturatzen zenbat eraso egoten diren.

Pentsa dezagun egun hauetan eta urtean zehar, ez iraganean bakarrik, nola lagundu nahi diogun geure gizarteari berdintasun hori lortzen. Edo gehiago oraindik, beharbada, matxistak diren ekintzekin lagundu dugu kontuan izan gabe, hain barneratuta ditugun ekintza matxistak egunerokotasunean sartuak ditugula; jarrera, komentarioak eta mespretxuak egiten dira emakumeen kontra.

Batzuek uste dute feminismoa barneratuta dugula eta politikoki emakumeei laguntzeko egiten diren ekintzen kontra egiten dute, pentsatuz ekintza horiek gizonen aurkakoak direla.

Artikulu hau irakurri ondoren gustatuko litzaidake gogoeta egitea eta gure gizarteari zuen laguntza eskaintzea berdintasunaren borroka honetan laguntzeko. ■■■

## Larrialdi egoeragatik, atzeratu egin dira Orioko Udalaren udako lanpostuetan izena emateko deialdien epea

Apirilaren 4an egitekoak ziren hautaketa probak bertan behera geratu dira.

Orioko Udalak hainbat pertsona hartuko ditu lanerako uda honetan, eta deialdia egiten du lanpostu horiek betetzeko. Deialdian parte hartzeko langabetua izan behar da, eta Orion erroldatuta egon, gutxienez 2020ko urtarriaren 1az geroztik. Dena dela, ez dute eskatuko erroldatuta egotarik Txu-Txu trenaren gidari, udaltzain laguntzaile eta Turismo Bulegorako lanpostuetarako.

Hurrengoak dira lanpostuak:

- Kabinen garbitzailea (bi lanpostu)
- Kanpineko garbitzailea (hiru lanpostu)
- Udaltzain laguntzailea (hiru lanpostu)
- Txu-Txu trenaren gidaria (bi lanpostu)
- Kanpineko mantentze-lanak eta zaindaria (lan-poltsa)



Txu-txu trenaren gidaria ere kontratatuko du Orioko Udalak.


- Turismo Bulegoko harreragilea (lanpostu bat)

Berez, martxoaren 27a baino lehen aurkeztu behar zituzten eskabideak lanpostuen deialdian izena eman nahi zutenek, baina, Espainiako Gobernuak

dekretatutako alarma egoera dela eta, epe hori indarririk gabe geratu da. Behin alarma egoera bukatzen denean, Udalak abisatuko du epe berria noiz artekoa izango den.

Apirilaren 4an egitekoak ziren hautaketa probak ere bertan behera geratu dira.

## Aiako Kutxabank bulegoak ez du bezeroen arreta zerbitzurik eskainiko aurrerantzean



Kutxabank banketxearen Aiako bulegoa.

Kutxabank banketxeak Aiako Udalarik jakinarazi dio herriko bulegoak itxi egin duela bezeroarentzako arreta zerbitzua. Hala, Nekane Arrizabalaga alkatea adierazpen instituzionala zabaldu du herritarren artean, Aiako Udala erabakiarekin ados ez dagoela azalduz. "Orain arte izan dugun zerbitzua berreskuratzea zaila ikusten dugun arren, Aiako Udalak baliabide guztiak jarri ditu martxan egoera honi aurre egiteko", adierazi du Arrizabalagak ohar bidez.



## Hainbat zergaren ordainketa atzeratu egin du Orioko Udalak

Koronabirusak sortutako larrialdi egoeraren aurrean, herritarrek pagatzen dituzten zergen ordainketa atzeratzea erabaki du Orioko Udalak. Alde batetik, Ondasun Higiezinaren Zerga ordaintzeko epea atzeratu egingo du udalak. Normalean maiatzaren 15etik ekainaren 30era bitartean kobratzen da, baina aurten, abuztuaren 1etik irailaren 15era kobratuko da.

Bestetik, Ibilgailuen Zirkulazioaren Gaineko Zerga ordaintzeko epea zabalik zegoen Espainiako Gobernuak alarma egoera dekretatu zuenean. Hasiera batean, apirilaren 30ean bukatzen zen ordaintzeko epea, baina luzatzea erabaki du Orioko Udalak.

Ordainketa helbideratuta dutenei maiatzaren 30ean kobratuko zaie zerga. Dena dela, sortutako egoeratik, herritarren batek

ezin badu epe horretan ordaindu, ekainaren 30era bitartean pagatzeko aukera izango du. Horretarako, udalean jakinarazi beharko du bere asmoa. Ordainketa helbideratu gabe dutenek, berriz, ekainaren 30era arte izango dute aukera ordainketa errekararik gabe egiteko.

Bestalde, herriko taberna eta jatetxe askok kalean terraza jarzteagatik Bide Publikoa Terrazekin Okupatzeko Zerga ordaintzen dute. Konfinamendu egoeraren ondorioz ostalariek bizi duten egoera ezagutzen du udalak, eta terraza erabili ezinik egon diren denbora ez zaiela kobratuko jakinarazi du.

### Gipuzkoako Urak

Gipuzkoako Urak Kontsorzioak erabaki du erabiltzaileei ordainketa zatika egiteko aukera ematea.




Ibilgailuen Zirkulazioaren Gaineko Zergaren ordainketa atzeratu egin da.

Hala, faktura zatika ordaindu nahi dutenek eskaera egin beharko diote Ur Kontsorzioari, borondatez ordaintzeko epea bukatu baino lehenago.


## Oriotik egingo dute ETBko 'Meza Santua' programa, larrialdi egoera amaitu bitartean

Aurrerantzean, Unai Manterola apaizak emango du ETBko meza Orioko elizatik.

ETBko *Meza Santua* programa igandero egiten da, txandaka, Euskal Herriko eliza batetik, baina, koronabirusak sortutako larrialdi egoera dela eta, programa igandero toki beretik egitea erabaki dute arduradunek. Unai Manterola Orioko apaiza da programaren koordinatzailea, eta berak emango du Euskal Herri osora zabalduko den meza Orioko elizatik, egoera bere honera etorri bitartean. ■■■



Orioko elizaren zimitoria. LUIS BIXKI




# Erlauntza

Zenbat erle ikusten dituzu?

Horrez gain, bila itzazu elementu hauek:

-  luma bat
-  jostorraz bat
-  botoi bat
-  bi eltxo
-  bi beldar
-  ehunzango bat



# Itzala

Zein da bi lore maitemindu hauen itzal zuzena?





# Labirintoa

Lagundu erleari erlauntzara onik iristen, sekuentziari jarraituz. Gogoratu laukian banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean. Pasa dituzun laukietako hizkiak batu eta esaera zahar bat osatuko duzu. Puntu grisak hitzen arteko tartekak dira.



Idatzi hemen esaldia.

	L	R	T	A	N	P	E	H	E	D	G	L	I
	O	S	E	R	S	Q	B	E	H	S	E	G	G
	E	B	O	S	E	R	O	I	L	A	N	A	G
	R	A	H	A	J	E	N	L	U	R	S	O	R
	L	T	A	S	U	Z	B	A	E	Z	I	S	T
	E	A	K	E	A	A	S	U	E	T	I	G	Z
	I	O	A	N	Z	B	O	L	O	R	D	T	E
	A	B	A	U	T	A	K	E	L	D	D	E	Z
	B	E	C	U	I	A	E	T	A	R	G	I	A
	R	A	O	A	H	L	O	E	R	A	I	B	B
	R	A	E	I	E	C	J	L	U	T	S	U	B

# Sudoku

				L
R	E			
B		i	O	
E	i		B	i
		B	i	
i				

Ondoko BI LOREek sudoku baterako aitzakia eman digute. Osa itzazu lauki zuriak bi hitz horiek osatzen dituzten letrak kontuan hartuta (B, I, L, O, R eta E). Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

# Marratzu

Sei dado hauetatik lau besterik ez datoz bat irudi zabalduarekin. Zeintzuk dira? Horrela asmatzea zaila baldin bazaizu, irudi zabaldua paper batean marraztu eta dadoa muntatu. Berehala konturatuko zara zeintzuk diren txarrak eta zeintzuk onak.

## Bota dadoa!

Ui! Erlea ihesi doa! Zer ote da beldurtu duena? Txori baten moko zabala? Tximista? Armiarma? Spray pozoitsua? Marratzu ezazu.



Soluzioak ikusteko:  
[www.plazanbazan.eus/](http://www.plazanbazan.eus/)



# #etxetikmundura



**KARKARA**k eta **UKT**ko gainerako hedabideek tokian tokiko sortzaileen emanalditxoak eskaintzeko Etxetik Mundura izeneko egitasmoa jarri dute martxan. Orain arte, Intza Unanue, Ibai Marin eta Libana Taboada, Rosi Lazkano edota Iratz eta Imanol Urkizuren saioak eskaini ditu **KARKARA**k, eta herriko beste hainbat sortzailearen saioak prest ditu dagoeneko.

Iragarpenen zerrendetan agertzen ez diren sortzaileek ere izango dute egitasmoan parte hartzeko aukera. Horiek bideok [zuzendaritza@ukt.eus](mailto:zuzendaritza@ukt.eus) e-posta helbidera bidali besterik ez dute egin behar; edozein kultur adierazpenekin lotutako emanaldiak onartzen dira.

Beraz, animatu eta bidali zuen bideoak!

## IRAGARKI SAILKATUAK

## GALDUTAKOAK

Argazki kamera digitala galdu dut. Kamera poltsa gris eta zuri baten barruan zegoen. Modeloa Sony Cyber-shot DSC-RX100M3, beltza. Serie zenbakia S01-30838664-I. Oso argazki garrantzitsuak ditu. andreas.schwarz@gmx.bix. Tel.: 688 85 96 82

## ALOKAIRUA

Logela alokagai. Etxebizitza berria eta logela handia, ohe handiarekin, mahaiarekin eta armairuarekin. Etxeak 30 metroko terraza du. Tel.: 652 55 15 50.

## LAN BILA

Asteburuetan eta jai egunetan lan egiteko prest. Paperak eta gomendio orriekin. Patricia. Tel.: 674 12 32 93.

Ume zaintzan zein etxeko lanak egiteko lan bila dabilen 29 urteko neska euskalduna naiz. Adin desberdinetako haurrekin hezitzaile eta irakasle bezala esperientzia dut. Tel.: 638 73 05 44.

Neska bat lan bila. Etxeko lanak, umeen zein adinakoen zaintza, garbiketa lanak, asteburuetan zein aste tartean; baita orduka ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel.: 661 13 32 95.

Neska euskalduna, haurrak zaintzeko, etxeko garbiketa egiteko eta klase partikularrek emateko prest. Lehen hezkuntzan graduatua. Umeekin esperientzia handikoa. Tel.: 636 31 22 31.

Neska lan bila. Barnezaintzaile, garbiketa lanak eta zaintza. Esperientziaduna, Orion bizi naiz. Marlin. Tel.: 632 58 23 65.

Ume zaintzan lan egiteko prest dagoen neska oriotarra naiz. Tel.: 676 44 13 27.

Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketa lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Tel.: 642 69 60 38.

Emakume venezuelar bat bere zerbitzuak eskaintzeko prest. Jende helduarekin ospitalean egoteko prest, egunez eta gauzez. Tel.: 688 61 04 52

Lan bila nabil, etxe garbiketarako egiteko prest. Tel.: 641 44 60 70.

Lan bila nabil etxe garbiketarako eta haurrak zein helduak zaintzeko. Orduka lan egiteko. Tel.: 643 66 23 89.

Etxeko lanak egiteko eta zaintzan lan egiteko prest nago. Tel.: 631 82 44 52.

Neska arduratsua lan bila dabil. Barneko zein kanpoko langile bezala adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. Karlene. Tel.: 631 87 86 59.

Lan bila dabilen emakumea naiz. Bikaina naiz haurrak zaintzen, eta garrantzi handia ematen diot garbita-

sunari eta txukuntasunari. Arduratsua naiz, eta arreta handia jartzen dut nire lanean. Berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 602 08 98 86.

Etxeko eta zaintza lanak egiteko prest nago. Esperientzia dut eta arduratsua naiz. lanerako gogoz nago. Wendy. Tel.: 612 46 42 43.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. Barneko zein kanpoko langile bezala, edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Samantha. Tel.: 643 85 78 54

## LAN ESKAINTZA

Langile baten bila gabiltza pertsona heldu baten zaintza eta etxeko lanak egiteko. Derrigorrezkoa da gidatzeko baimena eta paperak edukitzea. Tel.: 656 73 55 19.

Urdaira sagardotegin txotx sasoiari lanerako jendea behar dugu. Urtarrilaren 11n hasi eta maiatzaren 10era izango litzateke.

Zarauzko Iruña tabernan, urte osorako, zerbitzaria behar dugu. Interesatuok deitu mugikor zenbakira. Tel.: 656 75 04 89.

## ETXE BILA

Familia bat gara. Hiru gela dituen etxe baten bila gabiltza. Tel.: 661 33 11 13.

Neska oriotar bat etxea alokatu nahian. Tel.: 677 28 95 21.

## SALGAI

Olaciregi txipironera salgai. Suzuki DFIS motorra. Abendura arte aseguru ordaindu du. 3.500 euro. Tel.: 657 77 45 11.

## BESTELAKOAK

Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin du zer egoeratan dagoen: ITVa pasa gabe, kolpeekin, aberiata... Tel.: 623 17 95 37.

Garaje itxi bat erosi nahiko nuke kobxe bat sartzeko tokiarekin. Herri erdialdean edo goiko kalean. Tel.: 666 18 41 69.

Portugeseko ahozko mintza praktika hartu nahiko nuke ingelesaren edo euskararen truke. Tel.: 691 34 48 56.

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943-83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: [karkara@karkara.com](mailto:karkara@karkara.com). Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

## ITSASO

Eguna	Itsasgora	Itsasbehera	Ilargia
1	10:34 eta 23:06	04:12 eta 16:37	☾
2	12:09	05:34 eta 18:08	☾
3	00:42 eta 13:39	07:07 eta 19:36	☾
4	02:02 eta 14:45	08:21 eta 20:41	☾
5	03:02 eta 15:36	09:17 eta 21:33	☾
6	03:52 eta 16:22	10:05 eta 22:19	☾
7	04:39 eta 17:05	10:49 eta 23:04	☾
8	05:23 eta 17:47	11:32 eta 23:48	☾
9	06:07 eta 18:29	12:15	☾
10	06:51 eta 19:11	00:31 eta 12:57	☾
11	07:36 eta 19:55	01:16 eta 13:40	☾
12	08:22 eta 20:42	02:02 eta 14:25	☾
13	09:13 eta 21:36	02:52 eta 15:15	☾
14	10:15 eta 22:45	03:50 eta 16:16	☾
15	11:41	05:02 eta 16:36	☾
16	00:10 eta 13:16	06:29 eta 19:05	☾
17	01:33 eta 14:26	07:50 eta 20:16	☾
18	02:36 eta 15:15	08:48 eta 21:07	☾
19	03:23 eta 15:53	09:32 eta 21:47	☾
20	04:01 eta 16:24	10:08 eta 22:23	☾
21	04:34 eta 16:53	10:40 eta 22:55	☾
22	05:05 eta 17:21	11:10 eta 23:26	☾
23	05:35 eta 17:48	11:39 eta 23:56	☾
24	06:05 eta 18:17	12:08	☾
25	06:35 eta 18:46	00:26 eta 12:37	☾
26	07:08 eta 19:18	00:58 eta 13:08	☾
27	07:43 eta 19:54	01:32 eta 13:43	☾
28	08:23 eta 20:37	02:11 eta 14:23	☾
29	09:13 eta 21:32	02:58 eta 15:13	☾
30	10:21 eta 22:47	03:58 eta 16:19	☾

## FARMAZIAK-APIRILA

## ORIO

6, 7, 8, 16, 20, 21, 22, 23, 24 eta 30. LASA: Herriko plaza / 943-83 09 96

## ZARAUTZ

1, 25 eta 26.	ETXEERRIA: Gipuzkoa kalea, 17 / 943-83 23 98
18 eta 19.	ESPARZA: Santuturri plaza, 5-6 / 943-50 47 83
2 eta 14.	GALLO: Zigoritia kalea, 17 / 943-13 40 19
3 eta 28.	GARMINDE: Gipuzkoa kalea, 68 / 943-12 40 19
17 eta 29.	IRIARTE: Zinkunegi, Pilarbo Enea / 943-13 29 70
9, 10, 11, 12 eta 13.	ITURRIA: Kale Nagusia, 12 / 943-83 29 70
15 eta 27.	REDONDO: Urdaneta kalea, 8 / 943-13 31 83
4 eta 5.	ZULAIKA: Bizkaia kalea, 41 / 943-13 39 94

# Puntua jarrita

Andoni Campos.  
(Doinua: balearen bertsoak)

**1**

## **Negua joan da ta badator udara**

egoera honetan  
iritsiko al gara?  
Udaberria luze  
joango da, hara!  
Jende guztia etxean  
egongo baikara...

**2**

Covid-19a ari zaigu  
zailtzen, errutina  
guztiak ondo  
eraldatzen.  
Horregatik hasi naiz  
pixka bat kontatzen  
nire bizitza nola ai  
dan egokitzen

**3**

Umeak daude online  
klaseak jasotzen eta  
irakasleak den-dena  
prestatzen. Makina lan  
daukagu egina  
hobetzen... Hori nola  
gauzatu ai gea  
saiatzen

**4**

Atera puxtarriak  
karta jokorako,  
familia-errezetak  
abian jartzeko...  
Entretanimendua  
izango da gako  
ume asko etxean  
dituztenentzako

**5**

Guk, arraunlariok  
jarraitzen deu berdin:  
ergometron kateai tira  
eta ekin, saloi edo  
garaje ta musikarekin  
udan herriratzeko mila  
banderekin

## **Hurrengo bertsolaria:**

Eñaut Marti.

## **Puntua:**

Oriotik Txinara  
joan nintzen lanera.

**Hasi Bertsotan atalean puntuka ariko dira bertsolariak. Oraingoan Andoni Camposeri jarri dio puntua Juan Antonio Erkiziak: "Negua pasatzen (e)ta badator udara". Hurrengoari ere jarri dio puntua.**





# 'Ttap' berritua eskuragarri!

+



'Gorabeherak'  
websailarekin!

**ttap**

Irakurri, ukitu,  
ikusi, entzun.

**DOAN**

Euskarazko aldizkari  
digitala, deskargatu  
astero zure mugikor  
edo tabletan

